

Goienkaria

2010eko uztailaren 9a > Egubakoitza > X. urtea > 429. zenbakia > Doan banatzekoa




www.goiena.net



"Hauteskundeei begira, ezkerreko alderdiekin harremanetan galbitza"

Ander Rodriguez
Alternatibako zinegotzia eta batzarkidea > 08



G2a

Eskuekin ere ikus daitezkeen argazkiak > 31

BERGARA

Azoka eta herriko nekazaritza nola bultzatu aztertzen dihardute > 16

OÑATI

Olateko bidean arropa islatzaileak eroateko eskatu dute > 20

ARETXABALETA

Hamaikabat ez dago ados Tubos ingurunerako asmoekin > 22

INGURUMENA > ZABORRA

Urte hasierarako martxan nahi dute Antzuolan atez atekoa

ONARTUTA Mankomunitateak proposatu du Antzuolan hasteko atez ateko bilketa, eta Udalak onartu egin du

IRAILEAN HASI Informazio kanpaina egingo du Udalak herritarrekin batzar bidez, auzoz auzo eta kalez kale

LASTER GERTU Auzo bakoitzeko beharrak aztertuta, atez atekoa ezarriko da abendu edo urtarrilerako > 02-03

JENDARTEA > ELKARTASUNA

'Busti zaitez' etzi Arrasaten

Esklerosi anizkoitza aintzat hartzen duen kanpaina egingo dute igerilekuan > 05

Danbaka musika lehiaketa abian da; irailaren 17ra arte eman daiteke izena

Burrunba eta danbatekoak berriro entzungo dira Elgetako Espaloia Kafe Antzokian urritik aurrera. Izan ere, Danbakaren laugarren edizioa martxan jarri berri dute. Atzo aurkeztu zuten lehiaketa Iker Barandiaran arduradunak eta Maider Arregi aurkezleak Elgetako Espaloian. Izena emateko epea irailaren 17ra arte dago zabalik. Aurten, gainera, lehenengoz, Debagoieneko talde onenak bideoklipa grabatzeko sari berezia jasoko du. Debagoienera, Debabarrenera eta Durangaldera zabaldu dute lehiaketa. > 32



AURKEZPENA Elgetako Espaloia Kafe Antzokian aurkeztu dute aurtengo edizioa Iker Barandiaranek eta Maider Arregik.

JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 06-07
Elkarriketa > 08
Herriak > 11-27
Kirola > 28-29
Kultura > 32
Gazteak > 34
Sailkatuak > 35
Telebista-Irratia > 436
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

KIROLA > ATLETISMOA

Ibarreko lau atleta lehiatuko dira Espainiako txapelketan

Oraingo asteburuan egingo dute Nerjan (Malaga) Espainiako gazte mailako atletismo txapelketa. Eta han izango dira Arrasate Atletiko taldeak eman dituen lau ordezkari. Pertika saltoan, Maialen Axpe arrasatearrak (Atletico San Sebastian) 3,70 metroko marka eramango du -Euskadiko erreko-

rra- eta Aretxabaletako Lore Mar (Bidasoa) 3,55 metroko markarekin joango da. Eukene Dorronsorok 200 metroko lasterketan esku hartuko du eta horrekin batera, 4x100 erreleboan ere arituko da Bidasoa taldearekin. Gizonezkoetan, Iñigo Uribarrenek salto hiru-koitzean hartuko du esku. > 14

BERGARA > ZERBITZUAK

Autoen bedeinkatzea Bergaran

Bihar eta etzi bedeinkatuko dituzte, eguerdiko mezaren ostean, San Kristobalen > 17

JENDARTEA > PRESOK

Jon Agirre preso ospitalean

Gastroenteritisak jota egon eta gero eroan zuten Basurtuko ospitalera, baina onik da > 04

INGURUMENA > ZABORRA

"Urte hasieran naturaltasunez ezarrita egongo da atez atekoa"

ANTZUOLA Osoko bilkurak onartu egin zuen Mankomunitateak proposatutakoa, atez ateko sistema Antzuolan ezartzea, alegia

HASI DA PROZESUA Pedro Iturbek esan du irailean hasi nahi dutela informazio kanpaina bat, eta urte hasierarako sistema berriarekin hasi

LEIRE KORTABARRIA > ANTZUOLA Antzuolako Udalak uste du urte bukaerarako edo datorren urte hasierarako zaborrak atez ate batzen has daitezkeela. Lehentxeago edo beranduxeago hasi, kontua da zabor bilketa eredu aldaketa badatorrela Debagoienara, eta horretan lehenengo herria Antzuola izango dela. Horri atea ireki zion Mankomunitateko Gobernu Batzarrak astelehenean aho batez hartu zuen erabakiak: horren arabera, Mankomunitateak "eskualde guztian atez ateko sistema ezartzearen aldeko apustua" egin zuen, eta "urrian

zehar Debagoieneko herri guztietan atez ateko bilketa sistema ezartzeko ezarpen plana eta txosten ekonomikoa" Ingurumen Batzordean aurkezteko konpromisoa hartu zuten. Era berean, modu "mailakatuan" ezartzea erabaki zuten, eta "Antzuolan hastea" proposatu zuten. Antzuola aukeratu da "herriaren tamaina" eta "ezarpenerako izan ditzakeen abantailak" kontuan hartuta, "beste esperientzia batzuetan izandako ezarpenerako epeak" eta "Antzuolako Udalak erakutsi duen aldeotasuna eta sistema gaurdanik ezartzeko jarrera".

Eguaztenean, hilak 7, Antzuolako osoko bilkurak ontzat eman zuen Mankomunitatearen proposamena, aldeko zazpi botorekin: udal gobernu taldearen bostak eta Aralar-Zutik-Ezker Batua koalizioaren biak. EAJko hiru zinegotzitik bi joan ziren, eta abstentitu egin ziren; PSE-EEko zinegotzi bakarra ez zen joan.

EAJko Joseba Lezetak hone-lazaldu du euren botoa: "Azkarregi joan da prozesua, informazio asko ez geneukan, gauza batzuk zeharo erabakitzeke daude. Horiak ondo jakin arte, aldeko botoa ezin dugu eman". Aralar-Ezker Batua-Zutik koalizioko Jose Mari Iturbek, aldiz, hauxe esan du: "Atez atekoak emaitza onak ematen ditu, eta herritarrok ondo lantzen badugu, aurrerapen bat izango da".

AUZOTARREKIN ADOSTU

Antzuolako Udala antolatzen hasia da irailean egin nahi duen kanpaina. Alkatearen esanetan, nahi dute "herritarrekin konpartitu proiektu hori, atez atekoa zer den azaldu eta eurekin lantzen joan. Atez atekoa ez da kontu itxia, herri eta auzo bakoitzari egokitu beharra dago. Hori auzotarrekin adostu behar dugu, eta eurekin batuko gara, euren beharrek zeintzuk diren guk baino hobeto dakitelako. Informazio eta sentsibilizazio lanean hasiko gara, eta praktitarako pausoak eman: ikusi non ipiniko diren zintzilikarioak, zein izango den egutegia...".

Oinarria Usurbilen, Oiartzunen eta Hernanin erabiltzen duten ereduak izango da: han, familia bakoitzak bi edukiontzi jasotzen ditu, beti bat erabiltzeko modua izateko; hori hondakin organikoendako bakarrik erabiltzen da, eta asteke hiru egunetan ateratzen da. Gainerako hondakin multzoak hauek dira: papera eta kartoia; gaur egun



Langileak kuboetatik hondakin organikoak batzen.

DATUA

%80

BIRZIKLATU

Antzuolako Udalaren helburua da hondakinen %80 birziklatzeko izateko; hau da, papera, beira, plastikoa edo organikoa izatea. Gainerakoa Sasietara bidaliko da.

4

HILABETE

Iraileko informazio kanpainarekin hasiko da atez atekoa ezartzen Antzuolan; lau pabost hilabeteen martxan egotea espero da.

5

HONDAKIN MOTA

Bost hondakin multzo daude: organikoa; papera eta kartoia; plastikoa eta antzekoak; beira; eta errefusa. Konpresak eta ume-oihalak egunero atera daitezke.

edukiontzi horirako diren hondakinak; eta errefusa, hau da, birziklatu edo berriz erabili ezin daitekeen hondakina. Konpresak eta haur-oihalak egunero atera daitezke.

Iturbe baikorra da: "Ikusi da atez ateko sistema eragingarria dela; eta Antzuolako Debagoieneko lehen esperientzia izanik, txukun irtetea garrantzitsua da". Bere esanetan, "urtarrilean, atez atekoa naturaltasun osoz" ezarrita egon daiteke Antzuolan.

Sistema horren "funtsean" dago, Iturbek azaltzen duenez, "ondo birziklatzea, eta horrek dakar hondakin organikoa birziklatzeko pausoa ematea, eta neurri batean, norberak bere etxean konpostatzea. Batek beharbada etxean konposta egin ahal izango du, beste batek ez... Bi zutabe daude, hortaz: autokonpostajea bultzatzea eta, bestetik, hondakin organikoen batzea bultzatzea eta egutegi bat jartzea".

Hondakinak ateratzeko zintzilikarioak non ipini ere herritarrekin batera erabaki nahi du Udalak, eta "bi irizpide hartuko dira kontuan: herritarren eta auzotarren erosotasuna, eta bilketa egin behar dutenentzat ahalik eta bilketa errazena izatea".

Zaborra Mankomunitateak kudeatzen duenez, baliabide teknikoak hark ipiniko ditu.

ETXEKO ATARIAN

Antzuola izango da atez ateko sistema daukan bailarako lehenengo herria; baina dagoeneko atez atekoarekin egunero bizi diren

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
www.mondragon.edu/gep
e-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu
Tel: 943 71 21 91

Oñati gestio heziketa
www.mondragon.edu/enpresagintza
e-posta: gestioheziketa@gmail.com
Tel: 943 71 80 09

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2010-2011

Lanerako gertu!

Matrikulazioa
Uztailaren 7tik 13arte
ESKAINZA AKADEMIKOA

MGEP	Oñati Gestio Heziketa
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak - Sareko Informatika Sistemen Administrazioa - Fabrikazio Mekanikoko Diseinua - Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa - Industri Ekipoaren Mantenimendua	- Administrazioa eta Finantzak - Idazkaritza - Merkataritza Kudeaketa eta Marketing-a



GOIENKARIA

EAJ

"Mankomunitateak ez du ezer erabaki"

Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga "ados" dago atez ateko zabor bilketa Antzuolan ezartzearekin, "ereduzko esperientzia" gisa, baina beste herrietara zabaldu aurretik "azterketa ekonomiko sakona" egin dadin eskatu du Mankomunitatean; bere hitzetan, "badago txosten tekniko bat aurretik Mankomunitateak eskatutako txostenean ahuleziak ikusten dituen". Berretsi egiten du bosgarren edukiontziaaren aldeko jarrera. "Oñatik ez du ezer erabaki, eta Mankomunitateak bere osotasunean ere ez. Esperientzia pilotua Antzuolan egitearekin ados gaude; guk ez dugu inoiz oztopatuko plan pilotuak, udalak eskatutakoak badira", esaten du.

ARALAR

"Organikoa jasotzeko eragingarriena da"

Aralarko zinegotzi Mikel Etxanizek bere alderdiaren iritzia azaldu du: zaborrak kudeatzeko hasierako "fase baterako" atez ateko bilketa da euren ondoen ikusten dutena eta "eragingarriena". "Beste sistema batzuk badaude, baina guretako, materia organikoa jasotzeko bilketa sistema eragingarriena atez atekoa da". Hauxe gaineratzen du: "Badakigu jendea kontzientziatu egin beharko dela. Zabortegiak gainezka daude, gehienak legez kanpokoak dira... Denok pixka bat inplikatu egin beharko gara, eta hondakinak sailkatzen hasi beharko gara". Antzuolan, Aralar Ezker Batuarekin eta Zutik-ekin koalizioan dago.

PSE-EE

"Birziklatu ezin dena erraustu egin behar da"

Eusko Legebiltzarreko eta Arrasateko Udaleko PSE-EEko ordezkari Paco Gartzia arrasatearrak esan du bere alderdiak "argi eta garbi" erakutsi duela atez atekoaren aurkako jarrera erakunde guztietan. "Espero dut Arrasaten ez dela atez atekoa ezarriko", esan dio Goiena Telebistari. Hauxe gaineratu du: "Mankomunitateak hiru fase antolatu ditu, eta Arrasate hirugarrenean kokatu dute. Bistan geratuko da ez dela sistema onena, askoz garestiagoa dela eta zabor-turismoa delakoa sortzen duela. Gainera, oraindik ez digute esan zer egin nahi duten birziklatu ezin den zatirekin. Gu errauskailuaren alde gaude, bosgarren edukiontziaaren alde, eta birziklatu ezin dena derrigor erraustu egin beharko da".

debagoiendarrak daude Usurbilen, Oiartzunen eta Hernanin.

Mikel Laskurain aktorea Bergararra Hernanin bizi da eta, bere esanetan, "aldaketa handiena izan da kaleetako zabor-ontzi berde handi haiek desagertu direla; eta haien inguruko zikinkeria ere bai". Etxe aurrean zituzten bi zabor-ontzien trukean, orain etxean hiru kubo dituen altzaritxoak dute; han sailkatzen dituzte hondakinak, botatzeko momentura arte, dagokion eguneko 20:00etatik aurrera: "Dena dela, batek ezin badu, eguerdian uzteगतik ere ez da ezer pasatzen", dio.

"Organikoa da gehien sortzen dena eta gehien pisatzen duena; eta harritzekoa da zein errefus gutxi sortzen den". Organikoa botatzeko asteko hiru egun dau-de, baina, usainak-eta saiheste-ko, trikimailu bat azaltzen du Las-kurainek: "Izozkailuan sartzen dugu guk, ontzi baten, eta gero blokea dagoenetan bota kubora".

Jon Altuna bergararra ere Hernanin bizi da, eta diosku ero-soago bizi dela: "Komunitate bakoitzak erabakitzen du zintzilikarioak non ipini; ni sei etxe-bizitzako eraikin baten bizi naiz, eta atarian dauzkagu. Lehen, udaletxe ondoko edukiontzietaraino joan behar izaten nuen zaborra botatzera; orain, atarian bertan daukagu; ez daukagu arropaz aldatu beharrik ere. Hasieran beldurra zegoen organikoa usaina botako zuen, baina ez da horrela". Haren esanetan, atez atekoak eskatzen duen bakarra "diziplina pixka bat" da.

KONTUAN HARTZEKOAK

Erabilitako ahozapia zakarrontzira doa

> BI KUBO

Familia bakoitzari bi edukiontzi edo kubo marroi ematen dizkiote, bat kanpoan dagoen bitartean bestea erabili ahal izateko.

> IZOZTUTA

Hondakin organikoak bota arte, usainak saihesteko trikimailu bat dago: izozkailuan gorde botatzeko unea iritsi arte.

> MATERIAL DESBERDINAK

Paperezko ahozapi bat, adibidez, paper eta kartoiarekin batera botatzen da; baina erabili eta gero, errefusa da. Material bat baino gehiagoz osatutako gauzak ere errefusa dira.

> DENA GARBITUTA

Jogurt-potea, plastikozko plate-ra... ontziekin bota behar dira, baina lehenengo garbitu egin behar dira, janari-arrastoek usainik ez botatzeko.

> ILUNTZEAN

20:00etatik aurrera ateratzen da egunean eguneko hondakina.

> ATERATZEKO MODUA

Kubo marroia hondakin organiko-endako da. Paper eta kartoia paperezko poltsan, soka batekin batuta edo kartoizko kaxa baten atera daiteke; errefusa eta plastikoa, plastikozko poltsan. Beira gaur egungo edukiontzietan botatzen da.

> ERREFUSA

Errefusa da beste lau multzoetan sartzen ez dena: erratzarekin batzen dena, errautsak, bulego-materiala...

ESANAK

"Herritarrekin konpartitu nahi dugu proiektua: atez atekoa zer den eurei azaldu eta batera lantzen joan"

Pedro Iturbe > Antzuolako alkatea

"Azkarregi joan da prozesua, eta gauza batzuk zeharo erabakitzeke daude; horregatik ezin izan dugu alde bozkatu"

Joseba Lezeta > EAJko zinegotzia

"Atez ateko bilketak emaitza onak ematen ditu, eta herritarrokin ondo lantzen badugu, aurrerapena izango da"

Jose M. Iturbe > Aralarko zinegotzia

"Atez atekoa askoz garestiagoa da; gainera, oraindik ez digute esan zer egin nahi duten birziklatu ezin denarekin"

Paco Gartzia > PSE-EEko zinegotzia

ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

ERAIKUNTZAKO
PROIEKTUEN GARAPENA
ETA APLIKAZIOA

zure ikasketetan osagarria izango den
ORDENAGAILU ERAMANGARRI BAT OPARI

Orain da
garaia!

MATRIKULA EPEA
UZTAILAREN 7TIK 13RA

902 11 20 25
LANBIDE@ARIZMENDI.KASTOLA.NET
WWW.ARIZMENDIPRO.EU

A

Arizmendi
ikastola

PRO

EKONOMIA > MAHAI INGURUA

Enpresen erronkak aztertu dituzte diputatuarekin

MIKek Oñatin duen egoitzan mahai ingurua egin dute; Olano ahaldua eta Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea izan ziren han

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Markel Olano Gipuzkoako ahal-dun nagusia Oñatin izan zen astelehenean, MIKeko egoitzan. Mondragon Taldean kudeaketaren inguruko ikerketan diharduen erakundearen zeregina eta proiektuak gertutik ezagutzea izan zen bisitaren helburua. Aurkezpenaren ondoren mahai ingurua egin zuten Mondragon Unibertsitateko ordezkariekin eta Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga-rekin batera. Krisi garaian Debagoiena ze egoeratan dagoen eta bertako enpresek dituzten erronkak aztertu zituzten.

BERRIKUNTZA KUDEAKETAN

Olanoren arabera, Debagoiena Europako bailara aurreratuenetakoa da ikerketa, garapen eta berrikuntza arloetan. Baina sarri

berrikuntza teknologiarekin bakarrik lotzen dugula-eta, garrantzitsu jo du diputatu nagusiak kontzeptu horiek kudeaketa arloran eramateko MIK egiten dabilen lana. "Foru Aldunditik gero eta garrantzi handiagoa ematen diogu giza baliabideen kudeaketari", azaldu zuen Olanok.

ETENGABEKO HARREMANA

Aitor Urtzelai MIKeko zuzendariaren arabera, Diputazioa oso interesatuta dago MIKen eta MUREn arteko bateratze prozesuan, eta etengabekoa da erakundearen arteko harremana. Hala, hor kokatzen da asteleheneko bilera ere. Debagoieneko enpresek krisi egoera gainditzeko erronketako bat nazioartekotzea izan behar duela uste dute bai Urtzelai eta baita Olanok ere.

Urtzelairen arabera, kooperatibismoaren ezaugarriek lagundu dute egungo krisi egoera hobeto eramaten. Olanok adierazi du, oster, nazioartekotzen eta eskariaren jaitsierara egokitzen lan handia egin dutela azkenaldian hemengo enpresek. Hala, oraindik egoera zaila den arren Debagoiena Europako bailara aurreratuenera iristeko dela dio.



Lander Beloki
Enpresagintzako dekanoa

"Debagoieneko datuak ingurukoak baino hobeak dira, baina esan behar da oraindik lan handia izango dugula aurretik ezagutu dugun horretara iristeko. Unibertsitatea, enpresak, instituzioak... denak elkarrekin lanean gabiltza aurrera irteteko. Europa guztian, erronka lehiakortasuna da".



Markel Olano
Ahal-dun nagusia

"Esku artean dauzkagun datuen arabera ikusten da 2010a urte gogorra izango dela. Espainiako merkatuaren inguruan fakturazioa zutenek egokitu egin beharko dute eta nazioarte mailara zabaltzeko; izan ere, Espainia merkatu bezala oso gaizki dago. Berrikuntza izango da gakoa".



Aitor Urtzelai
MIKeko zuzendaria

"Termino orokorretan hitz eginda krisiak denei eragin digu; baina egia da hemengo ezaugarri bat dela guztion inplikazioa izan dugula. Aurrera begira nazioartekotzea izango da erronka. Kanpora begira egon behar dugu; horrek ez du esan nahi enpresek alde egin behar dutenik".



Lourdes Idoiaga
Oñatiko alkatea

"Samurrena da esatea Debagoiena Estatu mailan ondoen dagoen eskualdea dela, baina uste dut horretan ez dugula gelditu behar. Krisiak eragina izan du eta langabezia tasetan ikusten da hori. Oñatin, erronka da galdutako enpleguak berreskuratzea eta industria atzean ez geratzea".



Urko Lopez
MIKeko ikerlaria

"Sektore batzuk nahiko astinduak izan dira eta enplegu aldetik nabaritu da. Erronka nagusia da etorkizunari begira zeintzuk izan daitezkeen gakoak krisitik ondo ateratzeko. Berrikuntzan eta ikerkuntzan jardun behar dugu, baina helburuak izan behar du tokiko enpresei laguntzea".



Josu Zabala
MUKo errektorea

"Hezkuntzan ez da askorik sumatu krisia. Ikerketa arloan ere ez; krisian egon arren enpresek aurrera begirako apustua egiten dute. Nonbait igarri bada hezkuntza iraunkorreko arloan izan da; zenbait enpresatan, oso beharrezko ikasketak ez dituztenetan, jaitsi egin da eskaera".



VK COMUNICACION

Mondragon Taldeak sortutako auto elektrikoa ikusgai egon da MUn

Astelehenean jarri zuten ikusgai Mondragon taldeak sortu duen City Car autoa Mondragon Unibertsitatearen aurrealdean. Izan ere, MUK parte hartu du autoaren sorkuntzan. Gainera, orain dela 13 urte kooperatibak sortu zuen Zeus modeloa ere ikusgai egon zen, besteak beste.

Aukera aprobetxatu zuten ikasleen diploma banaketa ekitaldia autoak erakusteko; eta, baita, auto elektrikoaren gaineko hitzaldia egiteko ere. Ivan Gallego irakasleak egin zuen hitzaldia.

POLITIKA > EUSKAL PRESOK

Ospitalean baina onik da Jon Agirre

Eguaztenean eraman zuten Jon Agirre preso Basurtuko ospitalera, gastroenteritisak jota egon ostean

A.E. > ARRASATE

Jon Agirre preso "egoera onean" dagoela jakinarazi die konfiantzazko medikuak senideei. Eguazten goizean eraman zuten Agirre Basurtuko ospitaleko larrialdi zerbitzuetara. Han, konfiantzazko medikuak bisitatu zuen eta hark adierazitakoaren arabera, "onik da 68 urteko preso".

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak informatu duenez,

gastroenteritisak jota egon da azken egunotan Agirre eta hainbat proba egin ondoren ondo dagoela ondorioztatu dute.

29 URTE ESPETXEAN

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak azaldu nahi izan du horrelako egoerek Agirreraren senide eta hurbilekoei sortzen dieten kezka eta ezinegona. Agirrek 29 urte daramatza espetxean, eta haren osasun egoera oso larria da. Gaixotasun larria izan arren, preso mantentzen dute espetxean aramarioarra.

Agirreraren egoera juridikotari dagokionez, 2006an bete zuen Agirrek ezarri zitzaion espetxe zigorra; baina Auzitegi Goreneko doktrina aplikatu zioten eta 30 urte oso-osorik bete arte edukiko dute preso Jon Agirre.



Urko Irastortza Bergarako udaletxearen atarian, hitzaldia egin aurretik.

JOKIN BEREZIARTUA

Urko Irastortza > Udalbiltza auziko inputatua

"Etorkizuneko Euskal Herrian Udalbiltzaren baliokide bat behar-beharrezkoa izango da"

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Zazpi urteren ondoren, uztailaren 15ean hasiko da Udalbiltzaren aurkako epaiketa, Espainiako Auzitegi Nazionallean. Instituzioa bera epaitzeaz gain, 22 hautetsi epaituko dituzte. Horien artean dago Urko Irastortza (Lazkao, 1973). Bergaran izanzen Irastortza auziaren gaineko hitzaldia egiten, Bergarako Bai Udalbiltzari babes taldearen eskutik.

Noiz eta zein alderditako zinegotzi izan zinen Lazkaon?

1999-2007 urteen bitartean izan nintzen zinegotzi Lazkaon. Lehen lau urteetan Euskal Herritarrok alderdiko zinegotzi eta beste lau urtez legez kanpo utzi zuten Aleria Zutabea Lazkaoko herri ekimeneko hautetsia izan nintzen.

Zer egin zenuen Udalbiltzan auzipetua izateko?

Udalbiltzako Kirol ardura-dun moduan ekimen askotan parte hartu nuen, baina ekimen horiek ez dute zerikusirik gaineratu nahi diguten delituarekin.

Zer leporatzen dizu, bada, Auzitegi Nazioanalak?

Bai niri eta bai besteei, talde armatuko kide izatea leporatzen digute. Akusazio pertsonalik ez dago, generikoak dira. Autoan ez da agertzen norbanako moduan egin ahal izan dugun delituri.

Zein da kasurik txarreanean jaso dezakezun zigorra?

Fiskalak 10 urteko espetxe zigorra eskatzen du. Akusazio partikularrek [Dignidad y Justicia eta AVT], berriz, 14 urtekoa. Niretzako epairik okerrera 14 urteko espetxe zigorra izango litzateke.

Zer espero duzu epaiketatik?

Delituri ezean, espero dudana epai bakarra aske geratzea da, baina Auzitegi Nazionalarekin batek daki. Hobe da esperantza handirik ez egitea.

Zergatik uste duzu egin dute la Udalbiltzaren aurka?

Herri guztiek euren instituzio propioak sortzeko duten eskubidea zapuztu nahi dute, euskal herrien arteko lankidetzaren esparruak deuseztatu nahi dituzte eta, bide batez, mezu bat bidali nahi diote euskal gizarteari: Estatuak zehaztutako mugetatik haratagoa joatea arriskutsua da.

Zer deritzozu EAk eta ezker abertzaleak egin duten konbergentziarako saiakerari?

Balorazio pertsonala egingo dizut. Herri honen askabidea indar soberanista ororen elkarlanean datza. Bide horretan ezker abertzalea eta EAren arte-

ko akordioa funtsezkoa izango da etorkizunerako, baita ondoren etorriko diren guztiak ere. Herri honek bide irmo bat hartu du eta indar metaketak bide horretan aurrera egiten lagunduko du, zalantza barik.

Zer-nolako garrantzia du Udalbiltzak, zure ustez?

Eusko Legebiltzarrak zilegitasuna aitortu zion eta euskal herritarren gehiengoak berbera pentsatzen du. Hainbat ekintza aipagarri egin ditu Udalbiltzak: besteak beste, Euskal Herriko Naziotasun Aitormena, Zuberoa Garatzen proiektua, Euskal Herriko eskubideen karta, Estaturik gabeko nazioen biltzarra eta Euskal Herriko estatistika zentroa.

Udalbiltza sortu zen Lizarra-Garaziren itunaren ondorioz, su-eten sasoian eta indar abertzaleak bat eginda. Egoera hori hautsi zenean, eraginkorra izan zen erakundea?

Egoerarik gogorrean euren Udalbiltzak zilegitasun eta zentzu osoa du. Etorkizuneko Euskal Herrian Udalbiltza edo haren baliokide bat behar-beharrezkoa izango da.

Sentitu duzu auzipetuengana-ko herritarren babesik?

Bai, oso era gertukoan, gainera. Oso garrantzitsua da auzipetuontzat babes hori jasotzea, babes eta indar metaketa horrek soilik geldi dezake eta bidegabekeria hau. Babes horrekin jarraitzeko, epaiketaren aurka hilaren 17an Bilbon egingo den manifestaziorako dei egin gura dut; 17:30ean, La Casillatik.

ELKARTASUNA > VICENTE FERRER FUNDAZIOA

Ulmak enpresa kanpoko lan kooperatiboa sarituko du

Gizarte proiektuetan parte hartu duten bazkide eta langileei begira, ekimen berria

J.B. > OÑATI

Uлма taldeak, Vicente Ferrer fundazioaren laguntzarekin Indiako Anantapur hirian etxebizitzak eraikitzeko proiektu kooperatiboarekin aurrera dihardu, urtez urte. 2004an ekin zioten proiektuari eta sei urteotan bost etxebizitza eraiki dituzte. Vicente Ferrer fundazioak 53 etxebizitza eraikitzea jaso zuen hasierako proiektuan. Oraindik badago zer egin, beraz.

Ez da hori, baina, proiektu laguntzaile bakarra: aurtén Vicente Ferrer fundazioaren bitartez Jayasudha izeneko haur bat jaso dute, 5 urtekoa. Jayasudha haurraren hartzea eredu hartuta, elkartasun kate bat sortu dute, Ulma taldeko langileak ere haurrak hartzera animatzeko.

LANGILEEI ERREKONozIMENDUA

Hala, Ulma taldeak enpresa barruko lanaz gain, elkartasun proiektuetan parte hartu duten langileak ere errekonozitu gura ditu. Prentsa ohar baten bidez jakinarazi dutenez, "bazkide eta langileen elkartasun konpromisoa" aitortu gura du Ulmak. Hala, *Mundua hobetzen laguntzeko proiektua* lelopean, abian jarri dute boluntario egindako lanean oinarritutako ekimena, taldeko bazkide eta langileek gizarte ekintzetan egiten duten lana errekonozitzeko. Ulma fundazioa irailean aurkeztuko dute eta horren barruan antolatutako ekimena da.

Hala, gizarte proiektuetan lanean diharduten bazkide eta langileei Anantapurerrako (India) bidai bat ordainduko die Ulmak, urriaren 9tik 17ra. 15 laguneko taldea izango da eta bidai horretan, besteak beste, Ulma eta Vicente Ferrer fundazioaren lana bertatik bertara jarraitzeko aukera izango dute Ulma fundazioko patronatuak aukeratzen dituen langileek.



Uлма taldeak lagundutako eraikina, Anantapur-en (India). VICENTE FERRER FUNDAZIOA

> GAIXOTASUNAK

Esklerosi anizkoitzaren aurka bustitzeko deia domekan Arrasaten

Domekan esklerosi anizkoitzaren aurkako eguna izango da Arrasateko udal igerilekuetan; *Busti zaitex* kanpaina, hain zuzen. Zazpigarren edizio horren helburua izango da, aurreko seietan moduan, gaitzaren aurka gizarte sentsibilizatu eta dirua lortzea. Diru hori erabiliko da ADEMGi elkarteak 2007ko maiatzean ireki zuen esklerosi anizkoitza eta beste gaixotasun neurologikoen zentroak bertako gaixoei eskaintzen dien birgaitze zerbitzua finantzatzeko. Esklerosi Anizkoitza fundazioak eta ADEMGi antolatzen dute elkartasun jardunaldia.

> IRTEERA

Aizkorrra irteera etzi, Arantzazuko Adiskideen eskutik

Arantzazuko Adiskideak taldeak antolatzen duen egitasmoaren laugarren hitzordua izango da domekan. Egún osoko irteera egingo dute, Aizkorrra. Irteera Arantzazuko Santutegia hoteletik egingo dute, 09:00etan. Domekako ibilbideak 16 kilometro ditu, eta zortzi orduko iraupena izango du—sei oinez eta bi Urbian bazkaria egiteko—. Gura duen edonork har dezake parte irteeran.

Urtea bukatu aurretik beste bi irteera egingo ditu Arantzazuko Adiskideak taldeak: irailaren 12an Urbiara egingo dute txangoa eta urriaren 10ean, berriz, Aloñara igoko dira.



zabalik

Iñaki Peña

Baloia, burua, bihotza

Futbola ez jat gustetan, Real Sociedad izeneko taldea bai-
zik, txikitatik deukodan sentimendu irrazional eta trans-
probintziala da, badakizue.

Baina futbola izugarri aldatu da sasoi horietatik, Arcona-
da-Celayeta-Gorriz-Gajate-Olaizola... Urteak aurrera, Bakero,
Begiristain eta Lopez Rekarte izan ziran lelengoak diruaren
truke taldetik alde egiten. Burua versus bihotza.

Eta urte gehiago igaro dira eta gaur egun ia ezinezkoa da
Barça eta Real Madrilen diktadura kolokan ipintzea, 80ko
hamarkadan Errealak eta Athelticek egin eben moduan.

Eta selekzinoen mailan be buruek bihotzen ganetik agin-
duko ebelakoan nago; demagun euskal selekzinoa eta katalu-
niarra ofizialak izango balira. Xabi Alonsok zer gurago eben ba,
La Roja-gaz jokatu ala berdea-
zuria-eta-gorriagaz? Eta Carlos
Puyolek zer aukeratuko eban ba,
Mercedes bat edo Renault Clio
bat?

Bihotza badeukie geure muti-
lek, bai, baina burubakoak ez
dira ba!

Zorionez, bihotzak batzuetan izugarri traidoreak dira eta
agerian lagatzen dituzte, zeure lankide hori esate baterako edo
zeure osaba hura, urtean zehar sermoiak emoten deutsueza-
nak zeure aberri, bandera eta nazionalismoaren aurka, mun-
duko uritartasuna goraitatuz.

Azkenik Futbol Munduko Txapelketak iristen dira (eta
Wimbledonak, eta Tourrak...) eta orduan bai, euren aberria,
bandera eta nazionalismoa zilegiak dira, eta munduko uritar-
tasuna lekutan gelditzen da.

Momentu magiko hauetan planetan aberri bakarra dago eta
beti bardina da... Ez esan, "ez nazionalista" hauek katxondo
hutsak dira.

"Bihotza badeukie
geure mutilek, bai,
baina burubakoak
ez dira ba!"

usteak uste

Larraitx Zeberio

Kamerarekin mozorro artean

Mozorro gaua zuten Elgetan. Telebista kamera aldean
hartu eta adierazpenak hartzea egokitu zitzaidan. Bost
bat koadrila zeuden mozorrotuta, jende kopuru polita
eta, gainera, landutako mozorroekin, originalak gehienak. Ez
nekiena zen Elgetan, jaietan, lotsatiak direla. Ahalegina egin
arren, mozorrotutako hiru lagun bakarrik animatu ziren
kamera aurrean hitz egitera. Behin baino gehiagotan tokatu
zait festan daudenei elkarrizketak egitea, baina Elgetan bezain
emaitza pobreagorik ez dut sekula lortu.

Nondik begiratu, hala ikusi

Rafael Amasorrain
(Bergarako EAJko Udal Taldea)
Bergara

Maiatzaren 7az geroztik, idatzi
eta iritzi desberdinak ikusi
ditugu ostiraleko GOIENKA-
RIako atal honetan Errege
Seminarioa eta Arrizuriaga
Jauregiaren arteko truke edo
permuta dela eta. Data horre-
tan Iñigo Arregi (ezker aber-
tzalea) hasi zen kontu hau
aprobetxatuz EAJren aurka
idazten. Ondoren, Iñaki
Arriola (2010/05/24), Agurne
Barruso (2010/06/04), Karmele
Agirregabiria (2010/06/04),
Aintzane Oiarbide
(2010/06/11), Mikel Etxaniz
(2010/06/18) eta berriro ere
Aintzane Oiarbideren
(2010/07/02) idatzi eta erantz-
nak ere irakurri ditugu.

Hasiera batean, permutari
buruzko zilegizko eztabaida
garbia izan behar zuena
zurrunbilotsua gertatu da.
Eta azkenean, benetako
eztabaidaren mamia eta bere
ondorioak galdu edo ilundu
egin dira.

Aurrerago azaltzen
saiatuko gara, baina aurrez
esan beharra dago gai korapi-
latsua eta oso garrantzitsua
dela gure ustez. Bestalde,
inplikazio asko dituen gaia
ere bada eta ikuspuntu
desberdinetatik azter daiteke-
ena, gainera.

Baina permutaren gaiari
heldu aurretik, gure ikuspun-
tua argitu aurretik, hain
zuzen, Agurne Barrusok
ekainaren 4an idatzitako
gutunaren tonua eta edukia
salatu nahi ditugu. Ez dugu
uste eztabaida honetan
aproposak direnik eta gutxia-
go oraindik gure herriko
agintari nagusienaren ahotik
eginda.

Permutaren aurka egoteko
hiru arrazoi dira guretzat
garrantzitsuenak:

1. Arrizuriagako Jauregia
eta bere ingurunea (Unzeta
parkea) balore handikoak
dira gure iritiz eta leku
aproposa dela uste dugu
bertan Udal Liburutegia,

Kultur Etxea, elkarte desber-
dinentzako tokia, wi-fi ingu-
runea, kontzertuak kanpoan
eta abar egiteko. Badakigu
permuta edo trukearen
ondorioz parkea ere udal
ekintzetarako izango litzate-
keela, baina uste dugu, bertan
UNED egonez gero, parke
honen erabilera baldintzatu
egingo litzatekeela. Hori
pentsatzen dugu eta halaxe
adierazten dugu. Bestalde,
Barruso andreak zalantzan
jartzen du gauza hauek
guztiak sartuko ote liratekeen
jauregi honetan. Gure kalku-
luen arabera, jauregiak 1.500
m2 ditu eta erdisotoan egin
daitekeen handikuntzarekin
600 m2 gehiago izango lituzke
gutxi gorabehera (UNEDek
Arrizuriagan egingo lukeen
bezala). Beraz, guztira,
2.100 m2 izango lirateke.
Gauza asko egiteko nahiko
leku.

2. UNEDeko Patronatuak
2010eko apirilaren 9an eginda-
ko bileran honako erabakiak
hartu zituen, besteak beste:
- UNEDek datorren ikas-
turtea baldintza onetan has
dezan, 1,5 milioiko diru
kopuruarekin egokitze lanak
egitea.

- Aranzadi ikastolari
lagapen eremua handitzea,
horrela Bergarako mapa
eskolarra egokitzeko irtenbi-
dea emanaz.

Beraz, bi erakundeek
dituzten beharrak beteta
gelditzen dira Seminarioan.

3. Azkenik, badirudi
trukeak ez duela inolako
eragin ekonomikorik Bergara-
ko herriarentzat. Badirudi
permutaren erabakia "neu-
troa" dela. Ez gaude inolaz ere
ados honekin.
Ditugun informazioen
arabera eta nabaritasun
enpirikoak nahiz zentzuak
erakusten digutenaren
arabera, argi daukagu ez dela
gauza bera Seminarioa
konpontzea edo Arrizuriaga
konpontzea.

Hona hemen gure arra-
zoiak:
- UNED Errege Seminario-
an birreraikitze 6,5 milioi
euroko diru kopurua beharko
litzateke. UNED Arrizuriagan
birreraikitze 3,7
milioi euro.
- Lehen aipatu dugun

bezala, Seminarioan UNED
Patronatoak orain behar
dituen lanetan 1,5 milioi euro
inbertituko dira.

- Azkenik, azpimarratu
nahi dugu Seminarioa eroste-
ko UNEDeko Patronatuak
milioi 1 euro ordaintzeaz
gain, konpontzeko 5,6 milioi
euroko diru kopurua behar
dela eta permutarik egiten ez
bada, UNEDeko patronatuak
oradinduko lukeela hau
guztia. Permuta egiten baldin
bada, ordea, Seminarioa
Udaletxearen esku geratuko
litzateke eta 5,6 milioi (Agur-
ne Barrusoren datuen arabe-
ra) Udaletxeak bakar-baka-
rrik ordaindu beharko
lituzkeela...

Beraz, permutaren aldeko
erabakia ez da neutroa
Udalarentzat. Atera ditzala
bakoitzak bere kontuak.

Nondik begiratu, hala
ikusi. UNEDeko Patronatua-
ren ikuspuntutik, gauzak oso
bestelakoak dira. Laburbil-
duz, milioi bat euro ordaindu
dizkio Espainiar Gobernuari
Seminario osoaren truke eta
ordainketa hori bakarrik
eginda, Arrizuriaga Jauregia
bere esku geratzen da 600 m2-
ko gehitzearen eskubideare-
kin.

Nondik begiratu, hala
ikusi. Udal Gobernuaren eta
gainontzeko alderdien ikus-
puntuak (EA, PSOE, PP) ez
ditugu argi ikusten gai honi
dagokionez. Bakoitzak arrazoi
desberdinengatik defendatzen
du permuta. Zenbaitetan,
argumentu kontrajarriak
dira eta orokorregiak, gaine-
ra.

Eztabaidan hiru urte
eraman ondoren, ez dugu
egoki ikusten permuta
honekin ze helburu bete nahi
den garbi ez edukitzea.
Ondorio ekonomikoak han-
diak dira eta ez zaigu egoki
iruditzen oraindik ere
"herriarentzat estrategikoa"
dela edo "aukera berriak
irekitzen dituela" arrazoi
zehaztugabeekin egotea.

Hemen azaldu ditugun
datu guztiak Udaletxe eta
Patronatuaren eskuetatik
hartuak dira, ez dira gezu-
rrezkoak eta, bestalde, Permu-
taren auziaren inguruan
EAJk duen ikuspuntua argi
geratzea espero dugu.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAK
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Leire Kortabarria
(Herriak, Goienka eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)
Oinarritzko diseinua Goio Arana Maketazioa Oxel Arrieta eta Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga,
Igone Osinaga, Ziortza Martín, Ederne Gorosabel, Aintzane Muruamendiarez Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berbizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETAK 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria



LAGUNTZAILEAK



Euzko
Jaurilaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Euzko Jaurilaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Olandixoko tunela (Luis Mari Apraizi zuzendua)

Unai Bergaretxe Leibar
Arrasate

2010-06-25eko GOIENKARIAn Foru Aldundiko Errepide Saileko zuzendariari eginiko elkarriketan irakur daiteke Olandixko tuneleko obrak amaitzeko Aretxabaleta aldeko biribilgunea soilik falta dela. Ez da benetan hori bakarrik falta, Luis Mari. Obra askotan gertatzen den lez, hemengoan ere badago itxura denez kontuan hartu gabe duzun detalle bat. Oinezkook bage-nuen bide bat Loramendi kale aldetik eta Aramaio errekaren albotik Markulete aldeko industriagunera joateko, eta momentu honetan bide hori egokitu beharrean dago. Lan hau ere falta da Olandixoko tuneleko lanen barnean, obra hau egiten hondatu baita.

Gai hau aurreko aste bateko GOIENKARIAn aipatu eta salatu nuen.

Baina errepide berrien kasuan, bakar-bakarrik gogoratzen gara inaugurazio ordurako. Ahaztu egiten zaizkigu alboan utzi dituen bukatu gabeko lanak, hondatu-tako bideak... Orain Olandixo-ko tuneleko lanengatik sortuta-koak aipatzen ditut.

Baina... autopistak eragin-dako kalteak, nahiz eta autopi-s-ta zabalik egon, oraindik bukatzeko daude. Auzoetako bideak direla, basoetarako pistak direla... Aspaldi egina behar zuen Landarainoko bidegorria ere autopista egin zenean burutu behar omen zen. Noizko egongo da?

Espero dut kontuan hartuko duzula inaugurazioa baino lehen esandako bidea egoki jartzeko. Eta gogoratu nahi dut oinezkoontzat beste puntu beltz bat sortu duzuela Garaia aurrealdean. Uribarri etorbide barrenetik, Markuleteko industriagunera oinezko bidea ez eraikiz.

Uzarragako eliza eta ingurua, arrisku bizian

Iñigo Ramirez de Okariz Telleria
Antzuola

Uzarragaz hitz egiten denean, San Juan jaiak datozkigu buru-ra. Aurten ere ospatu dira, eta urteroko kontua azaldu da; hau da, "ze egoera txarrean dagoen eliza eta ingurua, eta zerbait egin beharra dagoela".Zoritxa-

rrez, urtero errepikatzen den egitasmoa da, haratago joaten ez dena. Nori dagokio arazo honi behingoz heldzea? Elizbarrutiari, Aldundiari, Udalari, auzotarrei, herritar guztiei? Erantzukizuna denok dute, salbuespenik gabe.

Izan ere, elkarlan serio batek soilik bermatuko du Uzarraga etorkizunean. Arazoa da nork mugitzen duen lehen-dabizikoz fitxa.

Elizbarrutiak badituela makina bat eraikuntza zaharberritzeko eta, Uzarragak momentuz ez du lehentasunik. Aldundiak beste hain beste: obra asko dituela esku artean, eta Elizbarrutiak markatutako lehentasunen artean Uzarraga ez dagoenez, ez du mugimendurik egingo. Udalak, berriz, elizako ondarea Elizbarrutiari dagokiola eta, ez du fitxarik ere mugitzen.

Uzarragako egoera penagarria da, eta premiazko neurriak hartu behar dira ezuste larriak saihesteko. Uda honetan hobe udazkenean baino. Zergatik? Kanpandorreko hainbat atal jaustear daudelako; elizpea, berriz, edozein unetan jausteko; antzinako eskolako teilatua zulatuta laster jausiko delako; abade-etxea guztiz okertuta, jaustear ere dagoelako; taberna eta etxebizitzaren teilatua zulatuta dagoelako, eta etxe barruan ura sartzen ari dela-ko...

Diagnostiko okerrena du Uzarragak. Duen minbizia hain zabaldua dauka, lehendabiziko lana jaustear dauden inguru eta elementuen aurrean neurriak hartu behar dira. Ez da elizari erreteila egitea soilik, esku-hartzea globalagoa delako, baina lehendabiziko neurria da jaustear dauden elementuekin zer egin eta pertsonen kalterako ezbeharrak saihestu.

Arazo honen guztiaren barruan, baina (eta hipotesi hutsa da ondorengoa), garbi dago herritar asko egongo litekeela prest Uzarragak bizi duen egoera honi heldzeko. Baina, betikoa, nork mugituko du lehendabizikoz fitxa?

Transition towns: eraldaketarako bide bat

Iñigo Iñurrategi
(Bagara eta HUHEZI-Lankiko kide)
Bergara

Adikziotik askatzeko bidea: Transition Mugimendua azaldu aurretik utzidazue –hasiera ematearren– gure gizartea adikzioaren ikuspegitik aurkezten. Mendebaldeko

gizarteak petrolioarekiko erabateko adikzioa du, ezin du bera gabe bizi.

Alkoholikoek, adibidez, adikziotik askatzeko jarraitzen duten bideak badu irakaspen interesgarririk gure gizartearentzako: alkoholikoen sendatze prozesuan bezalaxe, guk, gizarte moduan ere, antzerako pausoak bete beharko ditugu petrolioarekiko menpekotasun hori gainditzeko. Alkoholikoa lehen fase batean aurre-kontenplazioan dago; alegia, "nik ez dut arazorik, beno, edatea gustatzen zait, baina zer du horrek txarrik? Lagunek ere egiten dute eta ez da ezer pasatzen".

Hurrengo fasea kontenplazioarena da, "beno, nire bikoteari ez zaio gehiegi gustatzen, eta batzuetan gaizki pasatzen dut. Behar bada, hurrengo hilabeteetan zerbait egingo dut aldatzeko, baina oraingoz ez da ezer larria".

Hirugarren pausoa prestakuntzarena da, "hilabete honen bukaerarako zerbait egingo dut, prest nago zerbait egiteko". Eta azkenean akzioa, alkohola uzten hasten da. Hori da sekuentzia droga horrekiko menpekotasunetik askapenera igarotzeko.

Petrolioaren adikzioari zein iraunkortasun arazoei dagokienez, gizartearen gehiengoa aurre-kontenplazio edo kontenplazio fasean gaude, eta beraz, kontzientzia-zio lan dezente geratzen da oraindik benetan aldaketa sakonei ekiteko. Bide horretarako klabe interesgarriak aurkituko ditugu Transition proposamenean.

Transition mugimendua: bere jatorria Irlandan kokatzen da, 2005. urtean, baina ekimenaren muina Ingalaterrako hego-mendebaldean dagoen Totnes herrian dago. Mugimendu honen helburua aldaketa klimatikoak eta petrolio merkearen amaierak ekarriko dituen funtsezko aldaketen aurrean komunitatea berrantolatzen hastea da, erronka honi erantzuten dion trantsizioa garatzen hastea, alegia. Egia esan, bertaratuz gero ez genuke susmatuko Totnes herrian ezer berezirik dagoenik, normaltasuna da lehen inpresioa, baina etorkizunerako molde berriak esperimentatuz komunitatea berrantolatzeko ekimena ari dira gauzatzen.

Formulazio anti-sistemiko ideologizatuetatik aldenduz, eraikitzaileagoetatik abiatu eta irtenbideetarako pausoak asmatzen eta ekiten jarria dute beraien iparra. Mugimenduaren inspiratzaile nagusia den Rob Hopkins-ek

dioen moduan, "peak oil gertakariak eta aldaketa klimatikoak aukera paregabea eskaintzen digute gure inguruko mundua berrasmatzeko, birpentsatzeko, eta berreraikitzeko".

Aipagarria da esperimentu komunitario honek duen oihartzun gero eta zabalagoa; izan ere, gero eta gehiago dira bidelagun esperientzia berri honetan: ez soilik herriak, baita eskualdeak, edo Portland eta Bristol bezalako hiri esanguratsuak ere. Eskala nazionaleko ekimen batzuk ere ageri dira, Eskozia, Zeelanda Berria, Gales, AEB, Japonia eta beste hainbat herrialdetan.

Ikuspegi globaletik pentsatu eta lokaletik ekin: Lekuko esperientzietatik abiatuta, bizitzeko moldeak asmatzea aldarrikatzen dute (aditz honek gazteleraz duen zentzu bikoitzean, crear y acertar; hau da, sortu eta egoki gauzatu).

Komunitatea behetik gora berrantolatu. Azken finean, epe laburrean guztiok egin beharko dugun trantsizio prozesua gauzatzeko ahalegin zehatza proposatzen dute. Izan ere, energia gutxiagoko bizimoldea datorkigula jakinik (hurrengo 10-30 urteotan energia gutxiagoko aro berri baten lehen estadioak ezagutuko baititugu), hobe da berau planifikatzea (modu proaktiboan) ezustean ekin behar izatea baino (modu erreaktiboan).

Egitasmo honek gure gizarteari buruzko hainbat hausnarketa egiteko aukera eskaintzen digu, beharrezkoak diren gogoetak.

Joxepa Arregi, Askatasunaren dama

'Garratz' Zabarte Arregi
(Euskal presoa)
Arrasate

Jaenetik, tierra de olivos y aceituneros altivos, ziega bero eta ilun honetatik nire eskerrik beroena egoera latz eta gogor honetan nire ondoan eta familiaren ondoan izan zareten guztioi.

Eskerrik asko Joxepari Arrasaten egindako omenaldian izan zineten guztioi, Jokin, Jon, Amaia, Ines eta abar. Eta eskertu baita zuen bihotzean Joxeparen hutsunea sentitu duzuen guztioi ere.

Zaila egiten zait barruan daukadan sentipenak argitzea eta azaltzea.

Askotan ez dugu asmatzen barruko korapiloa askatzen.

Agurtu nahi zaituztet, baina, Jon Maiak Joxeparen gorputzaren ondoan botatako bertso honekin:

"Agur eta ohore Joxepa Arregi, Askatasunaren dama, zazpirehun preso seme-alaben quintasunaren ama".

Eta, jakin, datorren uztailaren 11n, eguerdi partean, Joxeparen errautsak aireratuko ditugula Antoboko damaren magalean. Bihotz-bihotzez.

Eraso sexistarik ez!

Rosa Urzelai
(Arrasateko Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Plataforma)
Arrasate

Gezurra dirudi oraindik ere *Ez dago eskubiderik* oihukatzen jarraitu behar izatea. Kokoteraino gaude kalean erasoak jasan behar izateaz, ilunpean. Kokoteraino ingurura begiratu behar izateaz, gizonen bat segika ari zaigun konprobatzeko. Kokoteraino sexu eraso eta bejazio matxisten biktima izatearen beldur bizi izateaz.

Ez dago eskubiderik! Andoaingo gaztea etxera zihohan bere herriko jaietan dibertitu ostean, bere herriko-etan!

Ez dago eskubiderik! Oraindik ere esaten da emakumeok persona bulnerableak garela, emakume izate soilagatik gure gorputza hauskorra eta indarrez hartzeko moduan egongo balitz bezala. Gazte haren beldurrean pentsatze hutsak oilo-ipurdia jartzen dit. Eta badakit ze beldurrataz ari naizen: emakumeok sentitzen dugun beldurra *matxito* batek bere presentzia eta indarra inposatu nahi digunean gure "*hauskortasunaren*" soken kontra. Komatxo artean eta letra etzanean idazten dut; izan ere, emakume izateagatik egozten diguten hauskortasun hori botere zaharkitu eta eta patriarkalaren abusua besterik ez da, gizartean inposatu dutena mundua osatzen dugun erdiak baino gehiago errespetatuak izan ez gaitezen.

Ez dago eskubiderik! Eta etorkizunean ere ez da egongo, baldin eta sortu dugun eta galtzen ari garen ongizate gizartean emakumeok ezin badugu espazio publikoetara askatasunez joan, eta ezin badugu gure herriko kaleetan lasai paseatu erasotzaile aseezinen itzal matxisten beldur barik. Ez dago eskubiderik!

Eraso sexistarik ez!

Ezker Batua utzi eta Alternati-
ba sortu zuen orain dela urte-
bete Ander Rodriguezek, jendar-

tea eraldatu eta "atomizatuta"
dagoen ezkerria batzen eragi-
teko. Politika, hauteskundeak,

erakundeak, alderdia bera,
bitarteko baino ez direla dio. Kri-
tiko da Lopezen eta Olanoren

jardunarekin, arlo ekonomiko
eta sozialean eta zerga politi-
kan ezer gutxi egin dutelako.

Ander Rodriguez > Alternatibako zinegotzia eta batzarkidea

"Hauteskundeei begira, ezkerreko alderdiekin harremanetan gabiltza"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Ander Rodriguez Lejartzak bigarren agintaldia du Arrasateko Udalean eta lehenengoa Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Ezker Batua Zutikekin aurkeztu zen eta Arrasateko alkateorde izan zen, baina Isaias Carrascoren hilketarela eta Udal Gobernuaren utzi zuten EB-Zutikeko hiru zinegotziek eta oposizioan daude harrezkero. Ezker Batua utzi eta Alternatiba sortu zuen beste alderdikide batzuekin batera iaz.

**Datorren urteko hauteskunde-
etarako zerrendak osatzen hasi
zarete?**

Oraindik ez. Etxea teilatutik eraikitzen hastea litzateke hori. Proiektu berria daukagu jendarteari aurkezteko eta, hortaz, hauteskundeetan egotea erabaki dugu. Bestalde, guretako, hauteskundeak bitarteko dira eta ez helburu. Zela aurkeztu, hurrengo hilabeteotan erabakiko dugu eta, horretarako, ezkerreko alderdiekin harremanetan gabiltza, EBrekin izan ezik: Aralar, Zutik, ezker abertzale ofiziala, EA...

**Ezker abertzaleak hauteskun-
deetan normal parte hartzeko
aukera izango duela uste duzu?**

Ez dakit aurkeztu ahal izango den, baina argi daukat beste edozeinek bezala aurkezteko aukera izan beharko lukeela, beharrezkoa da hori. PPK eta PSOEk gogortu egin nahi dute Alderdien Legea, baina hauteskunde demokratiko batzuetan ezker abertzale ofiziala presente egotea premiazkoa da.

Aritz Arrieta PSE-EEko Arrasateko zinegotziak esana dauka bere amets eta helburu nagusia Arrasateko alkate izate dela...

Seguruen, Arrietak eta biok politika ulertzeko era ezberdina daukagu. Boterea ez da helburua, bitartekoa baizik, proiektuak garatzeko. Argi dago Arrietaren helburua boterea dela. Lortuko duen? Ezker abertzale ofizialak hauteskundeetan normal parte hartzeko aukerarik ez badauka eta, bestetik, Arrasaten gauza ez bagara ezkerreko alternatiba sendo bat eraikitzeko, litekeena da Arrieta-ren ametsak egia bihurtzea.

Arrasateko Udal Gobernuan hasi zenuten agintaldia, baina Isaias Carrascoren hilketaren harira oposizioan amaitu duzue. Ze balorazio egiten duzu agintaldi honen gainean?

Hiru urte joan dira eta balorazio gazi-gozoa egiten dugu. Gauza onak egon dira, kudeaketa estiloan, moduetan, aldaketak egon dira, onerako, baina gabeziak ere ikusi ditugu. Gobernuan igaro genuen urtean hainbat alorretan aurrera egin genuen, parte-hartzean, jendarte ongizatean... eta beste gauza batzuk bidean geratu dira. Esaterako, Iturbide egoitzako langileen soldata parekatzea bertan behera geratu zen eta guretako oso gai garrantzitsua zen.

Ze iritzi duzu EA eta ezker abertzalearen arteko konbergentzia estrategikoari buruz?

Ezkerreko alderdien konbergentziaren aldeko lan irmoa egiten gabiltza eta ezker abertzale ofizialaren eta EAren artean sinatu duten dokumentuak planteatzen badu ezkerreko joeren indar metaketa, Alternatibak bat egingo du. Dena den, dokumentu horrek gabezia handiak dauzka, gure ustez, arlo sozialean.

ETAk zer egiten duen baldintzatuko du EA eta ezker abertzalearen arteko estrategia berria?

EAK hala aitortu du eta gure ustez ere hala izango da. Historikoki, Euskal Herrian, ezkerreko alderdien arteko harremanak, hitzarmenak eta proiektuak zaildu egin ditu ETArek jardunak. Oso garrantzitsua da ETArek amaiera. Aukera argia ikusten dugu Bruselako adierazpenarekin eta ETAk erantzun positiboa eman go balio adierazpen horri, gure arteko elkarlana erraztuko luke.

Zelan baloratzen duzue Kataluniako Estatutuarekin gertatutakoa?

Zapatuan Donostian izango diren mobilizazioekin bat egin du Alternatibak. Epaia irakurketa juridikotik haratago, azkenean, epaiak esaten du Espainiako Estatuak eta Konstituzioak zelan ukatzen dituen beste nazio errealtate batzuk. Hortaz, gure irakurketa da Kataluniak daukan aitortza falta hori Euskal Herriak ere pairatzen duela eta, horregatik, erantzuna ez dagokio bakarrik Kataluniari, Euskal Herriari eta beste nazio batzuei ere; Galiziari, esaterako.

Urtebete igaro da Ezker Batutik atera eta Alternatiba sortu zenutela. Hartutako erabakiarekin gustura?



Ander Rodriguez, Alternatibako zinegotzia eta batzarkidea.

ENEKO AZKARATE

ZERGA POLITIKA

"Gutxieneko errenta bermatzeko erremintak badauzka Diputazioak, baina ez ditu erabiltzen"

ETA

"Ezkerreko alderdien arteko harremanak eta proiektuak zaildu egin ditu ETArek jardunak"

Egia da Alternatiba eraikitzen Ezker Batuaren muinean sortu zela, baina gaur egunean Alternatibako kideen artean gutxiengoa gara EBtik etorritakoak. Ezkerreko paradigma berria beharrezkoa da euskal ezkerria birplanteatzeko eta lan horretan dihardugu: erakunde demokratiko batean, non militantzia gustura eta espazio librean diharduen.

Zatituegi ez dago ezkerria?

Ezetz esatea absurdoa izango litzateke. Ezkerria atomizatuegi

dago. Hori, berez, negatiboa izanda ere, alde ona ere badauka. Aukera bat da denon arteko elkarlana sustatzeko eta batze nahi horiek komunean jartzeko.

Zelan baloratzen duzu Patxi Lopezen urtebeteko jarduna?

Oso txarto. Aldaketaren gobernuaren zela esan ziguten eta ikusi dugu zertan oinarritu den aldaketa: identitateari dagokionez. Lopezen gobernuaren PPrek morroi da. Arlo sozialean eta ekonomikoan ez du ezelako ekarpenik egin. Lehen sei hilabeteetan Ares agertu zitzaigun lehendakari; hura zen gobernuaren buru.

Eta Olano eta Galdosen gobernuarena?

Diputazioak ez du inolako planteamendu alternatibotik, besteak beste, zerga politiketan. Merkatuak desorekak sortzen ditu errentetan eta erakunde publikoak desoreka horiek orekatzeko daude. Herritarrei gutxieneko errenta bermatzeko nahiko erreminta badauka Diputazioak, baina ez ditu erabiltzen.

**Joan den asteko greba orokor-
rrak zerbaitetarako balio izan du?**

Nire ustez bai. Agian, beranduegi etorri da, halere. Izan ere, argi utzi digute agintariek langileriak ordaindu behar duela krisia. Edozelan ere, grebarekin eman zen erantzunari jarraipena eman behar zaio, lan pedagogikoa egin behar da, azalduz beste irtenbide edo beste alternatiba batzuk badaudela krisitik ateratzeko.

Debagoieneko Mankomunitateak atez ateko zabor biltzea sistemaren aldeko apustua egin du. Ze iritzi daukazu?

San Markoko eta Debagoieneko mankomunitateetan atez ateko zabor biltzetaren alde egin dugu. Halere, esan behar dugu hiru urte pasa direla eta ez dela ezelako aurrerapausorik eman Debagoienean. Hortaz, positiboa da atez atekoaren alde egitea, baina esperientzia pilotuak aintzat hartuz, pausoak neurritz hartuz, herritarrei ondo informatuz eta ohitura berrietara heziz eta, azkenean, bideragarri eta egoki bada, abian jarritz. Presa barik.

goiena.net/bideoak
Elkarriketa osoa, webgunean.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behea / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT

PSIKOTERAPIA ZENTROA


Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Aretxabaleta > 22-23
Eskoriatza > 24 Antzuola > 25 Aramaio > 26 Elgeta > 27 Gatzaga > 27



> **ARRASATE**
Datorren astean zabalduko dute Ferrerías kaleko plaza > **13**



> **BERGARA**
Azoka biziberritu nahi du Udalak, eta EHNERi azterketa eskatu dio > **16**



> **OÑATI**
Udako kirol kanpainaren bigarren txandan lekua dago > **20**



> **ESKORIATZA**
Erakusketa dago 14 herritarrek egindako 28 margolanekin > **24**

Pako Legorburu > Goizperko fundatzaileetako bat

"Herrian lanpostuak sortzea zen gure nahia Goizper fundatu genuenean"

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Atzo, eguna, aurkeztekoak ziren *50 urte elkarlanean* liburua, Goizperren lan ibilbidea jasotzen duen liburua. Pedro Iturbe alkatea, Pako Legorburu fundatzaileetako bat eta Oscar Uzkudun gaur egungo lehendakaria izan ziren aurkezpen ekitaldian. Legorbururekin izan gara, Goizperko hasierak gogoratu eta gaur egungo egoera aztertzen.

Zelan gogoratzen duzu Goizper sortu zenuteneko garaia?

Garai hartan Antzuolan enpresa bat zegoen, Hilaturas Vergara, 140 lagun izatera iritsi zena. Makina modernoak zituzten, hariak egiteko. Herriko gremioak zeuden, denda batzuk ere bai... Gerra ostean Antzuolan hasi ziren Paris puntak egiten *-punta paixa* deitzen zitzairen, enbalajeen erabiltzen zirenak. Herrian ez zegoen lanpostu gehiagorik; esaterako, jende asko joaten zen Bergarara, Soralezera edo Eibarrera lan egitera. Geuk ere, 11 fundatzaileok, kanpoan lan egiten genuen.

Zelan izan zen fundatze hura?

Accion Catolica elkartearen genbiltzan orduan, eta ondoren Juventud Obrera de Accion Catolican. Arlo soziala lantzen zuen elkartearen hura. Gutako fundatzaile batek, Jose Maria Kortabarría, lan egiten zuen Pasaian eta han ere horrelako elkarte baten ibiltzen zen. Donostian *Tu* aldizkaria saltzen ibiltzen zen Kortabarría. Hark hemengoekin hartu-emanen zeukan eta hortik sortu zen kooperatiba moduan tailer bat sortzeko asmoa.

Ikusten genuen herriko arazo handienetarikoa zela lanik ez egotea eta jendeak kanpora irten beharra zuela; eta, batez ere, sortu behar genuen lantegi hura kooperatiba izatea nahi genuen.

Kamioien direkzioa fabrikatzeko mekanismoarekin hasi zineten.

Pentsatu zuten ona izango litzatekeela horrelako pieza oso bat erosi, diseinua egin, eta hura ekoiztu eta saltzea. Baina egun batean Eibarrera joan ginen eta esan ziguten merkatua topera



Pako Legorburu fundatzaileetako bat eta Oscar Uzkudun egungo lehendakaria, argitaratu duten liburuarekin.

A.E.

"Lehenengo une garrantzitsuenak izan zen pabiloia egitea, 1964. urtean"

"Orduan sortu ziren kooperatibek jarraitzen dute eta krisi garaian eredu izan dira"

iritsi zela eta hori ez zela negozioa. Ordurako guk makinak eskatuta genituen, eta lur jota geratu ginen. Gero, tornuetan erabiltzen ziren hodi batzuk ekoizten hasi ginen. Mekanizazioak baino etekin handiagoa ematen zuen.

Azkenik, Burdeosko nekazaritza ferian hartu genuen ihintagailuak egiteko ideia.

50 urte hauetako une garrantzitsuenak zeintzuk izan dira?

Lehenengo une garrantzitsuenak izan zen pabiloia egitea 1964. Erosi genuen 10.000 metro koadroko lursaila, 105 pezetatan metro koadroa. Jaso genuen 500 metro koadro baino gehiagoko lantegia. Esaten genuen geundela irteera puntuan.

Geure produktua geneukan, eta horrek etekinak ematen zizkigun. Ez geunden inoren mende, bezeroaren mende bakarrik.

Nola ikusten duzu Goizper gaur egungo egoeran? Eta krisitik irteteko indartsu dago?

Produktu guztiek euren kurba izaten dute; lehenengo hazten doaz eta helduerara iristen dira gero, gehien saltzen den unea. Nik uste dut krisi barik ere orokorrean hor dagoela Goizper, tontor horretan, jaisten hasita. Goizperrek behar du zerbait berria; izan ere, produktu bi horiek munduan nahiko zabaldua daude. Hala ere, itotzeko moduan ez gaudela esango nuke.

1964an 20 langile zituen Goizperrek

Gregorio Arbulu eta Pako Legorburu, industria peritua; Jose Mari Kortabarría, Jose Mari Biteri, Koldo Madariaga eta Eugenio Larrañaga, industria maisu mekanikariak; Julian Iparragirre eta Patxi Lete, makinatxoak; eta Jesus Agirre, Gervasio Legorburu eta Jose Lizarralde izan ziren Goizperko 11 fundatzaileak.

1964an lehenengo pabiloia eraiki zuten 20 langile zituen Goizperrek; progresiboki handitzen joan da enpresa, eta gaur egun 170 lagun inguru dira horietatik 144 bazkideak. Nekazaritza eta industria jardueratan sartuta dago Goizper: nekazaritzan, ihinttagailuak egiten ditu -Matabi marka ospetsua, adibidez- eta, industrian, enbrageak eta balaztak.

11 gazte elkartu eta lantegia sortzea posible ikusten duzu gaur egun?

Gaur egun badaude bideak beste modu baten egiteko; adibidez, Saiolan bezalako enpresen bitartez sor daitezke enpresa berriak. Baina behar dena da indarra. Gure garaian jendea herritik irteten zen eta gure nahia zen herrian lanpostuak sortzea, eta kooperatiba moduan izatea, gainera. Sentsibiltate handia geneukan, eta gure nahia ez zen dirua egitea; ahalik eta jende gehienari bere bizimoduan irtenbidea ematea zen gure nahia.

Bukatzeko: filosofia kooperatibista galdu egin da?

Orduan sortu ziren kooperatibek jarraitzen dute; eta oraingo krisi garaian eredu izan dira. Fagorrek, adibidez, soldadak jaitsi ditu, inork agindu barik. Sozietate klase txarra ez da, baina hori onartuko dutenak egon behar dira, aurrera ateratzeko.

Juan Luis Arkauz eta Andoni Altzelai > SUDC elkarte

"Trailean hasiko gara danborradaren 50. urteurrenerako zerbait berezia prestatzen"

UBANE MADERA > ARRASATE

Joan berri diren sanjuanetan herri-tar asko ibili da lanean ezkutuan, eta musu-truk. Hori da, esaterako, SUDC elkarteko batzarra osatzen duten sei lagun kasua. Datorren urtean 50 urte izango dira, adibidez, danborrada antolatzen dabiltzana. Hala-koak eta beste galdetu dizkiegu Juan Luis Arkauzi, SUDCeko presidenteari eta Andoni Altzelai, hamar urteotan presidente izan denari:

Lanpetuta ibili zarete, ezta?

Apur bat bai, baina bukatu da guztia behar den moduan, eta oporrak hartzeko gertu gaude. Baina bai, SUDCendako maiatz bukaerari hasi eta ekaina amaitu artekoak da urteko lanik gogorrena.

Gogorrena eta jendetsuena.

Ba, bai. Erretiratuaren Egunean batzen dira 800-900 bat lagun, eta lehenago hasi behar izaten dugu txartelak saltzen, saltokietatik bueltaka... Danborradetan, berriz, karrozak egin behar dira, entseguak, umeei jantziak eman eta hartu... Hor 300 bat neska-mutiko batu izan dira.

Danborradaren harira, datorrena urteurren borobila, ezta?

Bai. 50 urte goaz danborradak egiten. Horrekin lotuta, irailean hasi behar dugu zerbait prestatzen. Jendea deituko diogu ideiak hartzeko, lanak banatu... Gura dugu zerbait handia egin, zerbait berezia. Karroza enblematikoak...

Herriko beste ekitaldi esanguratsu batzuk ere antolatzen ditu, baina, SUDC elkarteak...

Hasten gara Inauterietan: sardina egin (guk geuk) eta egunean bertan txaranga ekartzen dugu eta gero sardina erre. Begira, justu

sanjuanetan hil egin da Crisanto Margusino, hark egin izan du sardina 30 bat urtean-edo. Langile ona zen, benetan ona.

Aste Santurako antolatzen dugu doke txapelketa. Orain hiru urte kentzekotan egon ginen, oso parte-hartze txikia zuelako. Beste urtebetean eutsi genion, eta 8-10 bat etorri eta poztu egin ginen. Baina iaz porrot totala izan zen; aurten 6-8 etorri dira, baina azkenean erabaki dugu kentzea. Dena den, dokea ez uztearren, beste zerbait antolatzea pentsatzen gabil-tza. Adibidez, proposatu behar dugu emakumeen dokea egitea. Doke txapelketa historikoa da Arrasaten, eta ez dugu utzi gura.

Egiten dugu, baita ere, elkar-teen arteko mus txapelketa. Sasoi batean egubakoitzero izaten ziren partidak, baina bi hilabete eta erdi irauten zuen, eta azkenean erabaki zen mus txapelketa azkarrak antolatzea, 4-5 ordukoa. Hori ere maiatzean egiten dugu.

Eta Arrasateko Akordeoi Lehiaketak ere guk antolatzen ditugu (abendua hasieran). Hor, adibidez, 5-6 egunean *a tope* ibiltzen gara. Bazkari eta afariak egunero ematen dizkiegu. Azkeneko egunean, adibidez, *lunch*-era 140 lagun joaten dira. Txalaparta

"Sanjuanetan hil da Crisanto Margusino, 30 bat urtean sardina egiten ibilitakoa"

"Lokal bat aldatu dugu, orain lehengo Gameiren aldamenean egiten ditugu-eta karrozak"

elkartean egoten gara prestatzen... Eskerrak koadrilako lauzpabost lagunak laguntzen duten...

Bestalde, orain hiru bat hilabete beste ekimen bat ere sortu zen: Arrasaten badaude sei bat erretiratu elkarteetara euskara sartu gura dutenak; txartelak, estatuak... euskaraz ipini eta halakoak. Gertu daude lanerako, borondatez. Etorri ziren hona, 14 elkartek eman zuten izena, eta harrezkero, bi hiletik behin batzarra egiten dute, euskara elkarte-etan zelan sartu aztertzeko.

Kontuan hartuta SUDC dela Arrasateko elkarte gastronomikoak batzen dituen elkarte, zelan iritsi da halako ekitaldiak antolatzera?

Aspaldiko kontuak dira, batzuek 50 urte baino gehiago dute. Hasieran SUDCen lau elkarte ziren: San Isidro, Udalpe, Danok Bat eta Casino (hortik izena: SUDC). Badirudi lehenengo danborrada lau elkarte horiek antolatu zutela. Oso danborrada txikiak ziren, Udalpe, Casino... atara ziren, baina handitzen joan zen. Nik gogoan daukat, bestalde, Erretiratuaren Egunean bazkaria Fagorko biltegian ematen zutenekoa. Erretiratuaren Eguna bera ere orain dela 47-48 urte hasi ziren antolatzen. Pentsa, SUDC elkarteak berak 60 bat urte edo gehiago izango ditu.

Zenbat lagunek osatzen duzue SUDC?

Sei lagun gaude batzordean, modu boluntarioan egiten dugu lan. Erreleboa datorrenean hartuko dugu. Adibidez, Andonik 10 urte egin ditu presidente, eta neuk laster hiru; lehenago, baina, nire elkarteko (Txalaparta) ordezkari



Juan Luis Arkauz eta Andoni Altzelai, SUDCeko banderarekin.

U.M.

izan nintzen 10 bat urtean. Onera litzateke lau urtean behin berri-tzea karguak, baina... Ea, ba, jende gaztea animatzen den.

Gero elkarte bakoitzak ordezkaria dauka hona bidaltzeko, eta, adibidez, abenduan egiten dugu batzar nagusia guztiekin.

Batzordeko guztiak zarete, baina, gizonak...

Badakizu, orain arte elkarte-etan ez da egon emakumerik;

orain, baina, Arrasaten badago elkarte bat haren presidentea emakumea dena: San Isidro elkarte. Eta Txalaparta elkarteko batzordean ere egon izan dira andreak.

Berritasunen bat baduzue datorren urteari begira?

Danborradaren urteurrenaren gain, lokal bat aldatu dugula. Karrozak, sardina-eta egiteko erabiltzen dugun lokala lehengo Gameiren aldamenean dago orain.

24 urte Euskal Herriko txokoak bisitatzen, aldian bat

24 urteko ohituraren emaitza da ondoko argazki hori. Arrasateko Tximeleta lagun taldeak bidali du, kontatuz 24 urte daramatzatela uztailko lehen asteburuan Euskal Herriko txokoak bisitatzen, autobus gidari berarekin, gainera. Aurten Gasteizko Santa Maria katedrala bisitatu dute eta Urduñan ere egon dira, herria bera eta bainuetxea ikusten.



GOIENKARIA

> POLITIKA

Udalbiltzako prozesatuekiko babes taldea Arrasaten

Udalbiltzaren kontra hasi behar duten epaiketa dela-eta, epaiketa beraren kontra eta epaiketa horretan prozesatuta dauden aldeko babes taldeak sortzen dabiltza herriz herri.

Bada, Arrasateko babes taldea ere sortu dute eta iragarri dute datorren astean aurkeztuko dutela, jendaurrean. Hitzordua egin dute uztailaren 14rako, eguaztena, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 18:30ean.

Udalbiltzaren kontrako epaiketa hurrengo egunean, uztailaren 15ean, hasiko dute.



Irudiak erakusten duenez, bukatzeaz dira Ferreríasko plazako obrak. Datorren astean zabalduko dute. J.B.

HIRIGINTZA > ALDE ZAHARRA

Datorren astean zabalduko dute Ferrerías kaleko plaza berria

Azken erremateak falta dira oraindik: argiteria instalatzea eta barandak jartzea, besteak beste

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Abuztuko oporren aurretik zabalduko dute Ferrerías kaleko plaza berria. Hala, Erdiko kaleak eta Ferreríasek beste lotune bat izango dute laster. Udaleko Hirigintza Sailak jakinarazi du datorren astean zabalduko dutela plaza berria, baina oraindik ez dute data zehatza ziurtatzerik izan. Izan ere, obrekin amaitzeko azken erremateak falta dira: oraindik argiteria publikoa egokitu behar da eta barandak jarri behar dituzte, besteak beste.

BI KALEAK, MAILA BEREAN
Pazko astean hasi ziren lanekin. Hain zuzen ere, apirilaren 6an sinatu zituzten obrak hasteko aktak. Lanak Asmatu S.L. enpresa zuzendu ditu eta Udalak Construcciones Etxaide S.A. enpresari esleitu zion obra. Lau hilabete epea zehaztu zuen Udalak, eta beraz, lanak ondo joan dira, atzerapen aipagarri barik. Plazatxoak 300 metro koadro inguru ditu, eta 18 metro inguruko zabalera. Eserleku eta lorategi txikiekin plaza txikia utzi dute,

eta alboetan berdegune txikiak jarriko dituzte –gerora udal ekipamenduetarako erabiliko dira–. Hala ere, obraren alde garrantzitsuena da bi kaleak lotzeko pasabidea jarri dutela. Obrekin hasi aurretik metro eta erdi inguruko altuera jaitsi eta Erdiko kalea arrapala eta eskailerekin maila berean jarri dute. Materialari dagokionez, harria, harlauzak eta egurra erabili dute.

ERABILTZAILEAK DITU DAGOENEO
Hirigintza Sailak jakinarazi du "zenbait herritarrek" erabiltzen dutela pasabidea: "Aste bukaertan, batez ere, obrako hesia zabaldu eta plaza zeharkatzen dute".

> JAIK
Pesak autobus zerbitzu berezia jarriko du Iruñera joateko, sanferminak autoa hartu barik gozatzeko

Pesak autobus zerbitzu berezia jarriko du gaur eta bihar, arrasatearrak autoa hartu barik Iruñera joan daitezzen sanferminez gozatzera. Zerbitzu berezia Eskoriatzan irtengo da, 18:00etan, eta Aretxabaletatik pasa ostean 18:10ean helduko da Garibaira. Txartelaren prezioa izango da 7,15 euro. Informazio gehiagorako Pesaren webgunera jo –*www.pesa.net*– edo 902 10 12 10 telefonora deitu.

> AUKEA
Haur eta gaztetxoendako udako kanpainaren lehen txanda gaur amaituko da, lau jardueratan

Aukea kirol erakundeak haur eta gaztetxoendako udari begira antolatzen duen kanpainako lehen txanda gaur amaituko da tenis, paddle, skate eta patinaje ikastaroetan. Lau jarduera horietan izena eman gura duten haur eta gaztetxoek gaur izango dute horretarako azken aukera. Izan ere, bigarren txanda datorren astelehenean hasiko da, hilak 12, eta hilaren 23ra arte iraungo du.



Iazko tenis ikastaroko une bat. ARTXIBOA

> AISIALDIA
Los Galerna taldeak kontzertua emango du gaur Zarautzen, Koloore markak antolatu duen festan

Arrasateko Koloore arropa markak proposamen freskagarria antolatu du gaurko. Los Galerna talde arrasatearraren surf musika ardatz hartuta, jai berezia egingo dute Zarauzko malekoian, Marina Txiki tabernan. Ospakizuna 20:00etan hasiko da eta Arrasateko laukotearen goi mailako zuzeneko instrumentalaz gain, bideo emanaldia eta zozketak egingo dituzte.

43 gaztetxo joan ziren Gamarrako igerilekuetara

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako gazte txoko eta gaztelekuek antolatuta, irteera egin zuten astelehenean Gasteiz aldera, Gamarrako igerilekuetara, hain zuzen. Hala, Udaixe eta Udaero ekimenek bat egin zuten egun batez. 12 eta 17 urte arteko gaztetxoek urtero egiten duten irteera horretan, aurten 43 gaztetxok hartu dute parte. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, egun osoa pasa zuten igerilekuetan, giro paregabea, eguraldi onak lagunduta.



TXATXILIPURDI

> IKASTAROAK

**AUKEAko
ikastaroetan izena
emateko azken eguna**

AUKEAk antolatzen duen Uda kanpainako bigarren hamabostaldian izena emateko azken eguna da gaur, egubakoitza, hilak 9.

Hala, datorren astelehenean, hilak 12, hasiko dituzte bigarren hamabostaldiko ikastaroak, eta hilaren 23ra arte jardungo dute.

Bigarren ekitaldi horretarako AUKEAk eskaintzen dituen ikastaroen artean daude padel, tenis, skate, aerodance eta spinning. Izena emateko deitu 943 77 16 77 telefono zenbakira.

> SASKIBALOIA

**Beñat Barberena
euskal selekzioarekin
izan da Galizian**

Joan den astean Galizian jokatu zuten nazioen III. torneoan izan zen euskal selekzioa eta aukeratuen artean izan da jokatzeko, Pablo Lasok detuta, Beñat Barberena. Arrasatekoari Onda Urbana taldean EBA mailan denboraldi txukuna egin ostean iritsi zaio selekzioarekin lehartzeko aukera.

Azken bi urteotan euskal selekzioak irabazi du torneo hori. Oraingoan, hirugarren sailkatu dira Kataluniaren kontra galdu eta Galiziaren kontra irabazi ostean.



Beñat Barberena.

OINTXE.COM

> SASKIBALOIA

**Berrogeita hamar
gazte baino gehiago
udako campusean**

Egunotan 50 neska-mutiko baino gehiago dabilta Ointxe! saskibaloietan antolatutako udako saskibaloietan campusean –saskibaloietan entrenamendu saio bereziak– esku hartzen.

Entrenamendu berezi horietan, gazteek ariketa tekniko eta jokoak uztartzen dituzte, eta gazteengan kirola eta saskibaloietan zaletasuna bultzatzeko asmoz antolatzen du Ointxe!-k campus hori. Asteleheneetik egubakoitzera bitartean, zortzi monitoreren aginduetara daude gazteak.

ATLETISMOA > ESPAINIAKO TXAPELKETA

Ibarreko lau ordezkari izango dira Nerjan

Maialen Axpe, Lore Mar, Iñigo Uribarren eta Eukene Dorronsoro lehiatuko dira Espainiakoan

Orain arte erakutsi duten mailari eusten badiote, hainbat domina ekartzeko gauza dira

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Oraingo asteburuan egingo dute Nerjan (Malaga) Espainiako gazte mailako atletismo txapelketa, eta bertan izango dira Arrasate Atletiko taldeak eman dituen lau ordezkari. Pertika saltoan, Maialen Axpe arrasatearrak (Atletico San Sebastian) 3,70 metroko marka eramango du Malagara –Euskadiko errekorra–, eta Aretxabaletako Lore Mar (Bidasoa) 3,55 metroko markarekin iritsiko da hitzordu nagusira.

Hala, joan den astean Mojategin egindako parte-hartze libreko probetan bi atleta horiek ondo baino hobeto ezagutzen dituen

Jonathan Perezek entrenatzailerak adierazi zuen bai Axpe eta bai Mar podiumera igotzeko moduan daudela. Are gehiago, Axpe podiumeko lehen postuan ikusten du Perezek, eta maila absolutuan lehenengo hamarren artean sailkatzeko aukerekin. Izan ere, Arrasatekoak berak adierazi zion *Asteleheneko Goienkaria*-ri aurtengo aire zabaleko denboraldian emaitzak batu eta batu dabilela.

Arrasate Atletikoko ordezkariekin jarraituz, Eukene Dorronsorok 200 metroko lasterketan hartuko du esku, eta aurtengo marka onena 26,10ekoa du.



Maialen Axpe, joan den zapatuan, Mojategin.

GOIENKARIA

Horrekin batera, Dorronsoro 4x100eko erreleboan ere izango da, Bidasoa taldearekin.

Gizonezkoetan, berriz, Iñigo Uribarrenek salto hirukoitzean hartuko du esku (14,26 metro).

MARIA JOSE GILEK, URREA

Beteranoen mailan, berriz, Maria Jose Gil Aronan (Tenerife) egin

duten Espainiako txapelketan izan da, eta, azken edizioetan moduan, oraingoan ere Arrasatekoa hainbat domina irabazita itzuli da. 800 metroko lasterketan lehenengo postuan iritsi zen helmugara. Horrekin batera, baina, txapelketako bigarren urrea irabazi zuen 1.500 metroko lasterketan.

ARETO FUTBOLA > ZALDIBARKO TXAPELKETA

24 ordu areto futbolean jokatzeko

Uztailaren 17an, 24 orduko areto futbol txapelketa egingo dute Zaldibarko antolatzaileek

X.U. > ARRASATE

Datorren zapatuan, hilak 17, Zaldibarko areto futbol txapelketako antolatzaileek 24 orduko antolatuko dute. Txapelketan parte hartu nahi dutenek info@zaldibarkofutboltxapelketa.com helbidera idatzi beharko dute, taldeen izenak eta jokalarienak azalduz. Ordainketa (50 euro taldeko),

berriz, lehenengo partidua jokatu baino lehen egingo dute, txapelketa egunean bertan.

Txapelketa horretan taldeetako jokalariek egingo dute epaile lana, eta talde bakoitzak kolore bereko elastikoa jantzi beharko du. Antolatzaileek uztailaren 15ean argitaratuko dituzte txapelketako ordutegiak.



Iazko 24 orduko txapelketako une bat.

GOIENKARIA

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

IKUSKIZUNA > ANTZERKIA

Kale-ikuskizun sariduna gaur Seber Altuben

'Habitus mundi' antzezlanak Euskadiko Kale-Ikuskizun Onenaren saria irabazi zuen Leioan

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Kale-antzerki saridun batekin gozatzeko modua izango dugu gaur, egubakoitza: Leioako Umorre Azokaren orain azkeneko edizioan, Euskadiko Kale-Ikuskizun Onenaren saria irabazi zuen *Habitus mundi* delakoa. Gipuzkoako Gaupasa eta Murtziako Nacho Vilar Producciones ekoizpen-etxeek elkarrekin egindako muntaia da, eta Udazabal kultura egitarauaren barruan antzeztuko dute. Seber Altube plazan hasiko da antzezlan, 20:00etan.

FRAIDEAK ETA KABARETA

Protagonistak fraide batzuk dira. Munduaren amaiera datorrela sinistuta, gizon-emakumeak ebanjelizatzeraz irteten dira komentutik. Baina bertuteen eta pekatuaren aldeko borrokak ez du jarraituko eurek uste zuten bidea, eta fraideak kabaretaren eta *music-hall*-aren munduan sartuko dira bete-betean.

Antolatzaileek diotenez, *Habitus mundi* ikuskizun entretenigarria eta ausarta da, eta helburua "ez da inor mintzea, bai



Habitus mundi Seber Altuben hasiko da, eta aktoreak alde batetik bestera ibiliko dira.

KOMUNIKARTEZ

zik eta ikusleek ondo pasa dezaaten eta, ordu batez, errealitate latzari ihes egin diezaioten".

Kaleko "ikuskizun puru" gisa deskribatzen dute, eta denetarik dauka: kalerik kale ibiltzen dira aktoreak, alde batetik betera; gai

nera, inprobisatu egiten dute, musika dago, koreografiak dau-de, eta publikoak parte hartzen du.

CIRQUE DU SOLEIL-ETIK

Anton Valen (Cieza, Murtzia, 1965) da zuzendaria. Klowen arlo-

an luzaroan jardun du; besteak beste, Cirque du Soleil-en *Alegría* ikuskizunean lan egiteko aukeratu zuen Slava Polunin-ek. Eszenografiaren arduraduna Alejandro Andujar 2009ko Max sariduna da.



Levellers taldea, Jeremy Cunningham-ekin aurrean, kontzertu baten.

GOIENKARIA

MUSIKA > KONTZERTUA

Levellers-en Euskal Herriko kontzertu bakarra, 3 aretoan

J.B./L.K. > ARRASATE

Euskal Herriko kontzertu bakarra egingo du Levellers punk eta folk talde ingelesak Arrasaten; 3 aretoan izango da, gaur, eguba-

koitza, 22:00etan hasita. Sarrerak Etxoste tabernan, Lazkano musika dendan eta *www.kulturalive.com* webgunean dau-de salgai, 15 eurotan. Kontzertu

aurretik leihatilan erosiz gero, 18 euro kostako dira.

Josu Uribesalgo musikazale arrasatearrarekin harremana dute Levellers taldekoek; orain dela hamar urte ezagutu zuten elkar, eta adiskidantzari eutsi diote. Uribesalgok behin eta berriz eskatu ondoren, azkenean bada-toz Arrasatera, zapatuan San Vicente de la Barquerako folk jaialdi baten jo behar dutela aprobetxatuta. Glastonbury-n ekainean arrakastaz jo ondoren eta urterro taldekoek antolatuta egiten den Beautiful Days zuzeneko musika jaialdiaren aurretik dituzte Brighton-ekoek bi hitzorduok.

EUSKAL FOLKA ETA ROCK GOGORRA

Talde protagonistaren aurretik Bizardunak talde nafarraren euskal folk erradikala –musikariok euren estiloari ipinitako etiketa– izango dugu lehendabizi. Gau berean Abadiñon jo behar dute, eta lehenak izango dira. Debagoienean, Bergarako gaztetxean jo zuten orain azkeneko; kontzertu jendetsua izan zen.

Bizardunen ostean, Arrasateko Cool Circus-en rock gogorra izango da entzungai.

IKUSKIZUNA > FILMAK

Gaur, egubakoitza, hasiko dira Monterron parkeko zinema emanaldiak

'Fama' emango dute gaur; abuztuaren 10era arte, astero izango da emanaldi bat; tartean, '80 egunean'

L.K. > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, hasiko dira aurtengo aire zabaleko zinema emanaldiak; Monterron parkean izango dira. Udazabal programaren barruko emanaldi guztiak bezala, doakoak izango dira. 22:30ean hasiko dira emanaldiok.

Fama izango da gaur eman-go duten filma. 1980an Alan Parkerrek zuzendu zuen musikalaren eta dramaren bertsio

berria da. Musika eta arte eszeniko ikasle gazte batzuen bizi-tza, ametsak, zailtasunak... kontatzen ditu.

KOMERTZIALAK

Gaur hasi eta abuztuaren 10era arte egubakoitzero emango dute film bat: *Los mundos de Coraline*, *Que se mueran los feos*, *Spanish movie*, *Yo también*, *Furia de titanes*, *Océanos*, *El peque o Nicolás* eta, euskaraz, *80 egunean* emango dituzte. Karmelo Alberdi Udal Kultura arduranak dioen moduan, "zinema zirkuitu komertzialetik ekarritako filmak dira; eskaintza oso handia egoten denez, Amaia antzokian ezin izaten ditugu gura beste film eman, eta emanaldi hauetarako ekarri ditugu ezin eman izan genituen horietako batzuk".

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

BASATI
TABERNA



943 711768



Azokan hutsik dauden lokalei ahalik eta erabilera egokiena eman nahi diete.

MONIKA BELASTEGI

UDALA > ZERBITZUAK

Azoka biziberritzeko lanean dihardu Udalak

Azokaren gainbeherari buelta emateko proiektua eta baserriko produktuen azterketa esleitu dizkiote EHNE kooperatibari

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Azkeneko urteetan azokak izan duen beherakadaz kezkatuta, hura berpizteko azterketa egin dezala eskatu dio Udalak EHNE-ri, Euskal Herriko nekazarien elkartasunari. Horrekin batera, herriko nekazaritzaren egoera azter dezala ere eskatu diote, eta Pedro Alberdi teknikariak dagoeneko badihardu zeregin horretan.

"Bi helburu daude ekimen honetan", dio Alberdik. "Bate-tik, azoka dago. Eraikina ia hutsik dago eta helburua da hari erabilera ematea eta hori nola egin daitekeen aztertzea. Horretarako, herriko baserriarregina hurbildu nahi dugu eurekin dinamika bat sortzeko. Hau da, azokarako proposamen zehatza

egin nahi dugu herriko baserri-tarrak aintzat hartuta; eurek ekoiztutakoa herrian saltzea litza-teke helburua. Kontua ez da azoka edozerekin betetzea, baserri-tarrendako onura bilatzen dugu".

LANA, EPEKA

Lan hori guztia epeka egingo dute eta lehenengoa abiatu berri dute, ekarpenak jasotzea, hain justu ere. Ekoizleekin batzartuko dira, eta kontsumitzaileei ere inkestak egingo dizkiete, azokaren gaineko galderekin. Izan ere, jendearen kontzientziazio maila zein den jakin gura dute azokaren gainean zein baserriaren gainean.

Datuok batu eta gero, ondo aztertu eta proposamena egingo dio Udalari Alberdik.

KONTSUMO TALDEA

Aldi berean, kontsumo taldea jarri nahi dute martxan; ekoizle eta kontsumitzaileak batuko dituen kooperatiba, hain zuzen ere. Zuzeneko salmenta modu horretan taldeko baserriarrek astero otarre bat prestatuko lukete eta erosleak horixe jasoko luke etxean. Otarreak sasoiko pro-

duktuak jasoko lituzke, guztiak herrian ekoiztutakoak; askotarikoz barazkiak, esnea, arrautzak, ogia, sagardoa... -beti ere ekoizle motaren arabera.

EHNEko teknikariak azaldu duenez, ekimena ez da zerotik abiatuko: "Badakit badirela lau ekoizle kontsumo taldean parte hartzeko interesa dutenak, eta egon daitezke gehiago, oraindik deialdirik egiteke dago-eta. Bestalde, parte hartuko luketen erosleak badirela ere badakit. Arrasaten, esaterako, bada halako kontsumo talde bat eta Bergarako erosleak daude. Bada, Bergaran taldea eratuko balitz bertoko kide egingo lirake". Ekimena gauzatu ahala kontsumitzaileei ere dei egingo diete.

> ZERBITZUAK

129 gaztek eman dute izena gaur hasiko den futbol txapelketan

Udaleko Gazteria sailak gazteendako antolatutako udako ekintzen artean, gaur, egubakoitza, hasiko da futbol txapelketa. 12 eta 16 urte bitarteko 129 gaztek eman dute izena. Kanporaketak gaur eta domekan jokatu dira eta talde irabazlea, berriz, astelehenean erabakiko da.

Horrez guztiaz gain, surfa egiten ikasteko irteera ere antolatu du Gazteria sailak adin bereko gazteendako, Zarautzera, uztailaren 28an. Izenematea eguaztenean, hilaren 14an, zabalduko dute eta txangoaren prezioa 14 euro dira.

> ZERBITZUAK

Gazte Informazio Guneak ordutegia aldatu du

Gazte Informazio Guneak ordutegia aldatu du udarako. Hori horrela, honako ordutegia izango du uztail eta abuztuan barrena: eguen eta egubakoitzetan 08:30-15:30 egongo da zabalik. Horrez gainera, itxita egongo da abuztuaren 2tik 22ra bitartean, biak barne.

Informazio gehiagorako edo edozein kontsulta egiteko deitu 943 77 91 57/8 zenbakira, idatzi gzerbitzua@euskalnet.net helbidera edo jo www.bergara.net webgunera edo kultura etxeko bigarren solairura.

TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Mujika gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

EDEL TAPIZ DENDA

Etterako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA





Martitzeneko jardunaldietako une bat.

LANDER MUÑAGORRI

HEZKUNTZA > LANBIDE HEZIKETA

Nazioarteko adituak hotzeko estanpazioaz aritu dira herrian

Miguel Altunak gonbidatuta Italia, Danimarka eta Frantziako adituek jardunaldiak egin dituzte

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Miguel Altuna institutuak hotzeko estanpazioari ekin zion duela bost urte, sektore horren garrantziaz jabetuta; eta ibilbide horretan, Maiatz Simulform Europako proiektua hasi zuen, duela bi urte. Proiektu hori oinarritu dute hotzeko estanpazioko diseinurako baliagarri diren softwareetan. Hain justu, software

horiek laguntzen dute fabrikazio prozesuei ahalik eta etekin handiena ateratzen. Bada, software horien onuren gainean aritzeko jardunaldiak egin ziren martitzenean, Miguel Altunan, nazioarteko parte-hartzaileekin.

HAMAIIKA TITULU

Italia, Danimarka eta Frantziako adituek hartu zuten parte jardun-

naldietan eta diploma-banatzea ere izan zen. Miguel Altunan hotzeko estanpazioko gradu-ondoko 11 ikaslek batu zuten titulua, Juanjo Alvarez Unedeko zuzendariaren eta Miguel Lazpiur Confebaskeko lehendakariak eskutik. Espainian, halako gradu-ondokoa eskaintzen duen eskola bakarra da Miguel Altuna eta Miguel Lazpiurrek azpimarratu zuen lehiakor izateko formazioa oso garrantzitsua dela. Lanbide Heziketako sailburuorde David Urzainki ere han izan zen.

oharrak

ELKARTASUNA

>Elkororen aldeko taldekoek batzarra deitu dute hilaren 14rako

Elkarte gastronomikoetako ordezkariekin batzartu nahi dute Pertxa elkartearen, 19:30ean. Elkororen alde egin daitezkeen ekimenak aztertu nahi dituzte.

ZERBITZUAK

> Baserri ingurunean sortutako plastikoa hilaren 27an batuko dute

Plastikoa laga behar da Ugarrixan, granja parean; Murinondon, trenbide ondoan; eta San Juanen, eliza aurreko plazatxoan. Batze lekuetako bat aldatzeko, deitu 943 76 25 47 zenbakira.

UDALA

> Agente izateko egindako proben emaitzak ikusgai daude

Udalak bi agente lehen, barne promozio bidez, kontratatzeko

eta lan poltsa osatzeko egindako proben emaitzak argitaratu dituzte asteon. Emaitzak ikusgai daude www.bergara.net helbidean.

SAN MARTZIAL

> Ehun euroko fidantza jaso daiteke hilaren 13ra arte

Kultura etxean jaso daiteke 18:00-21:00 ordutegian. Mahaiak eta aulkiak itzuli direla egiaztatzen duen agiria eroan behar da.

JAIK > SANKRISTOBALAK

Kupela taldearen saioa bihar Aldai Egiako jaietan

Ohiturari jarraituz autoak bedeinkatuko dituzte bihar eta etzi, mezaren ostean

M.B. > BERGARA

Aldai Egia auzoan San Kristobal jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran. Gaur, egubakoitza, hasiko dira jaiak: 22:00etan ohiko pinua jarriko dute ermita ondoan eta gero, saiheskia, sagardoa eta txokolatea egongo dira joaten diren guztiendako. Bihar, zapatua, San Kristobal eguna, meza nagusia egongo da 11:00etan eta meza-oren ostean, erretiratuendako

lunch-a egongo da. Horren ondoren, ibilgailuak bedeinkatuko dituzte, eta bedeinkatzea bukatu eta gero, Bihurri eta Flores aizkolariek erakustaldia egingo dute. Horrekin batera, goizean barrena musika ere izango da eta egunari amaiera emateko, 23:00etan, Kupela erromeria talde ezagunaren emanaldia egongo da eta gero, *agrofesta* disko-jarzaile bereziekin.

Domekan meza nagusia egongo da 12:00etan. Meza ostean autoak bedeinkatuko dituzte eta jarraian auzoko erretiratuerei *lunch*-a emango diete. Era berean, umeendako jolasak egongo dira.



Juan Kruz Mendizabal autoak bedeinkatzen.

GOIENKARIA

> EUSKARA

120 liburu saldu dira euskarazko irakurketa bultzatzeko Jardunek egindako kanpainan

Astebete euskarazko 120 liburu saldu dira Jardunek antolatutako Euskarazko Irakurzaletasunaren Astean. Batik bat, haur eta gazteendako liburuak saldu dira eta antolatzaileak oso pozik daude izandako emaitzarekin, lehenengoz antolatu dutela kontuan izanda, gainera. Hala, datorren ikasturtean berriz antolatuko dutela ere aurreratu dute. Ekainaren 28tik uztailaren 3ra arte iraun du ekimenak eta egun horietan Elkar Megadendan erositako liburuen prezioaren erdia elkarteak ordaindu du.

Belaontzian irteerak

- 12 metroko belaontzi ozeanikoa
- Ikastaroak
- Irteerak (egun bat edo gehiago)

617 41 37 11

DRAGON ORIENTAL

Gure plateren prezioak ez ditugu igo.

Eta gainera, plater berriak dauzkagu.

Proba itzazu!

943 25 06 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) **BERGARA**

Xanpainazko sangria **BERRIA**

Frutak & Barazkiak

Kalitatezko fruten bila? **M gusta** aukera biribila!

Urte sasoiko meloia	0,69 €/kg
Sandia	0,59 €/kg
Melokotoia	0,99 €/kg
Nektarina	0,99 €/kg
Ortuko tomatea	0,99 €/kg

Eskaintzaren epea: uztailaren 10etik 17ra arte (biak barne).

ORDUTEGI JARRAITUA:
08:30etik 21:00etara

M gusta

Barrenkale 9
Tel.: 943 76 10 43
BERGARA

Durana 16
Tel.: 943 03 66 63
ARETXABALETA

Uribarri etorbidea 3
Tel.: 943 08 14 07
ARRASATE



Udaleku musikaletan esku hartzen ibili diren gaztetxoak, irakasleekin batera.

BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

MUSIKA > UDALEKU MUSIKALA

"Musika erritmoa ondo jarraitzea ez da erraza"

Gaur 12:00etan egin beharreko emanaldiarekin amaitu dituzte gazteek udaleku musikalak

XABIER URTZELAI > BERGARA

Uda sasoia jolas egiteko sasoia da, baina musikak ere ematen du jolaserako aukera, eta aurten 30 neska-mutiko ibili dira udaleku musikaletan esku hartzen.

Eskolei etekina ateratzeko hiru talde osatu dituzte aurten, eta Aitziber Garmendia, Patxi Montero, Nerea Muruamendiaratz, Miren Garikano eta David Azurtza ibili dira irakasle lanean: "Udaleku hauek goizez egiten ditugunez gaztetxoek badute arratsaldeetan igerilekura joateko astia; horrenbestez, gustura etortzen dira", adierazi digu Miren Garikanok.

JOLAS ENTRETENIGARRIAK

Udalekuetan gaztetxoek hainbat ikasgai izan dituzte: abestu egin dugu, dantzari egin, instrumentuak jo... horrekin batera, gaztetxoek musika instrumentuak egin ere egin behar izan dituzte.

Hala, Garikanok azaldu du instrumentuak egitea ez dela zailena: "Gaztetxoek gustuko dituzte eskulanak, eta, 4 eta 10 urte bitarteko ikasleak izan ditugunez, eskulan horiek ezin genituen oso konplikatuak jarri. Hala, dandor bat egiteko nahikoa da plastikozko lorontzi bat eta globo bat, edo turutak egiteko plastikozko inbutua. Hori bai, ondoren ins-

DATUA

30

NESKA-MUTIKO

Gaur, egubakoitza, amaitu dituzten udaleku musikaletan 30 neska-mutiko ibili dira parte hartzen. Amaiera jai moduan kontzertua eskaini dute eguerdian Zabalotegin.

trumentu horiek txukundu egin behar zituzten.

Baina, aipatu moduan, instrumentuak egitea ez zen zailena: "Gaitzagoa da instrumentu horiekin erritmoa ondo eramaten jakitea; izan ere, konpasa eraman behar zuten, eta adin horretan ez da batere erraza".

ETENGABE MUGITZEN

Adi n horietako gazteak entretentuta izateak ematen du lana: "Abestiei dagokienez, abesti alaiak zituzten nahiago, eta adin horietan ipurterreak direnez, dantza egin zitezkeen abestiak".

Gaurko emanaldian egin behar zuten moduan, bi aste hauetan Europatik zehar bidai bat egin dute gazteek, bertako herrialdetako ohiko kantak eta dantzak ikasiz: "Eta, egubakoitzeko emanaldia ere hori izango da, bi aste hauetan egin duguna errepasatuko dugu, antzezlanean". Hala, Frantziara, Suitzara, Errumaniara, Errusiara edo Eskoziara egingo dute bidaia; eta baita Euskal Herrira ere.

FUTBOLA > IPINTZAKO TXAPELKETA

11ko futbol ligako eta kopako finalak gaur

Indar Gorrik eta La Juvek 19:30ean jokatu dute gizonezkoen final nagusia, Ipintzan

X.U. > BERGARA

Aurten ere Ipintzako futbol txapelketak arrakasta handia izan du, eta partiduak jokatu ahala iritsi da txapelketako fase erabakigarria.

Hala, gaur, egubakoitza, 18:30ean kopa txapelketako finala jokatu dute Dream Team eta Badulake taldeek; ligatik kanporatuak izan zirenek jokatu dute kopa, eta Badulakek iaz ligan lortutako lehen postua ez defendatu arren, kopan finale-

raino iritsi da. Ondoren, 19:30ean etorriko da txapelketako final nagusia, Indar Gorrik eta La Juvek jokatu dute-eta ligako finala.

33 TALDE IZAN DIRA AURTEN

Beteranoen eta emakumezkoen finalak aste barruan jokatu dituzte *Asteleheneko Goienkaria*-k jasoko ditu emaitzak-, eta antolatzaileek balorazio positiboa egin dute, 33 taldek hartu dute-eta aurten esku.



Iazko futbol txapelketako une bat.

X.U.

> PIRAGUISMOA

Patxi Ugalde munduko piraguismo txapelketan izango da Foix-en gaur, egubakoitza

Bergarako kadete mailako piraguista munduko txapelketan lehiatuko da gaur, egubakoitza. Txapelketa hori Frantzian egingo dute, Foix-eko uretan.

Beti Bustikoak Espainiako selekzioarekin jokatu du txapelketa hori, eta Espainiatik lehiatuko diren hiru piraguiisten artean egongo da.

> MENDIA

Pol-Pol eta Gorla Alpino taldeak antolatuta mendi irteera egingo dute domekan Baztan aldera

Bergarako mendizaleek Baztan aldera egingo dute egun osoko irteera domekan, 08:00etan irtenda -frontoian.

Pol-Poleko eta Gorla Alpinoko lagunek mendi zeharkaldia Amaiurren hasiko dute, eta handik Lapurdi eta Nafarroaren mugan dagoen Ainhua herrira egingo dute, oinez, besteak beste; paraje ederrak izango dituzte tartean.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia


Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13



ZURE AUTOAREN PIEZAK PUNTU-PUNTUAN



Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11 • Bergara

DESA**CRISTAL**

Santalaitz 6, 5. pabilioia • 943 76 36 09 • Bergara
Ibaiondo bailara 17, 8. pabilioia • 943 69 16 16 • Irura

**ELGETA
AUTOAK**

JULIAN SANZ FERNANDEZ

Berraondokoa z/g • Tel.: 943 76 82 02 • Elgeta



GARAJE BERRIA

Amillaga 49 • 943 76 24 43 • Bergara

ION AUTOAK



Amillaga 36 • 943 76 47 49 • Bergara



Santalaitz 3 • 943 76 11 20 • Bergara

MARKIEGI autoak



Leizeaga 1 • 943 76 35 09 • Bergara

Murillo Garajea



Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara



Lizarraga auzoa 8 • 943 78 70 77 • Antzuola

AUZOAK > ARAU BERRIAK

Olateko bidean arropa islatzaileak eramateko kartelak jarriko dituzte

Paseatzera edo korrika egitera doazenendako informazio panelak jarriko dituzte, Garagaltzako auzo-alkateak egindako eskaera aintzat hartuta

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Zuazola zubia pasata, Olateko bidean arropa islatzaileak eramateko agindua ematen duten kartelak jarriko dituzte. Korrika egitera edo paseatzera doazenendako informazio panel bi jarriko ditu Udalak, Garagaltzako auzo-alkateak egindako eskaera aintzat hartuta. "Iluntzen duenean sustoren bat edo beste izan dugu, eta zerbait larria gertatu aurretik

neurriak hartzeko eskatu diegu udal arduradunei", esan digu Garagaltzako auzo-alkate Joseba Guridik.

Erabaki horren harira, iluntzen duenean oinezkoek edo korrikalariek arropa islatzaileak eramane beharko dituzte soinean; hala nola eskumuturrekoak, orkatilakoak edo txalekoak. "Inportantea da karteiei jaramon egitea, istripurik edo ezusteko larririk egon ez dadin", dio- te arduradunek.

BI PANEL IPINIKO DITUZTE

Ez dago arropa islatzaileak eramatea agintzen duen kartel homologaturik. Hortaz, Udalak diseinu berriko kartelak eskatu dizkio enpresa espezializatu bati. Bi jarriko dituzte. "Oraindik ez dugu zehaztu zein puntutan jarriko ditugun; baina, seguruenik, bat

ipiniko dugu Olateko bidea hasten den tokian; hain justu ere, farolak bukatzen direnean", esan digu udaltzainburu Idoia Laspitak.

Bestalde, Olateko bidea egiten duten gidariei abiadura kontrolatzeko aholkua eman die:"Batzuei ahaztu egiten zaie auzo-bidea dela eta gehienezko abiadura 30 kilometro ordu dela".

ALBARRITZA BASERRI INGURUA

Etkezuri baserria pasa ondoren, Olatera doan bideko gune arriskutsuena Albarritza baserri ingurua da. "Oso iluna da tarte hori, batez ere neguan. Zuhaitz asko daude eta ikuspena txikia da", esan digu Guridik.

Garagaltzako auzotarrek beste eskaera bat egin diote Udala-

ri: hain zuzen ere, Etxeberrialdeko biribilgunetik gora dagoen zubi gaineko bidegurutzean ikuspena hobetzea. Horren harira, zubi ondoko zuhaixkak kentzea erabaki dute. Gainera, zubi parean ispilua jarriko dute, kontrako noranzkoan autorik datorren ikusteko.

Azkenik,GI-2630 errepidetik hilerrira edo herrigunera igotzen den aldapan abiadura motelatzeko elementua jarriko dute.

ESANAK

"Iluntzen duenean ezustekoak izan ditugu; hortaz, zerbait larria gertatu aurretik neurriak hartzea eskatu dugu"

Joseba Guridi > Auzo-alkatea

"Oraindik ez dugu zehaztu zein lekutan jarriko ditugun; baina, horietako bat ipiniko dugu Olateko bidearen hasieran"

Idoia Laspita > Udaltzainburua

oharrak

DEIALDIA

> San Migeletako egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa

Interesatuak turismo bulegoan edo kultura etxean utzi behar dituzte lanak hilaren 11 baino lehen. Parte-hartzaileek edozein teknika erabili ahaliko dute, baina, ezinbestean, *Oñatiko jaixak 2010* testua jarri beharko dute. Adinaren arabera hiru maila egingo dituzte.

ERAKUSKETA

> Emausen erakusketa ikusteko azken egunak

Emaus Fundazioak erakusketa ipini du ikusgai kultura etxean. Domekara arte ikusi ahaliko da edukiontzi zurietan jasotako arropa eta oihalekin zer egin daitekeen. 18:00etatik 20:00etara zabalduko dute erakusketa gela.

OSPAKIZUNA

> 1964an jaiotakoek kintada egingo dute uztailan

1964an jaiotakoek Etxe Aundin egingo dute bazkaria uztailaren 24an, 14:30ean. Interesatuak 30 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 30350005310051041678 zenbakian.

BIRZIKLAPENA

>Baserriko plastikoak batuko dituzte hilaren 27an

Lau puntutan jasoko dituzte: Zañartun, Zuazola inguruan; Murgian, Asentzio ermita ondoan; Olabarrietako autobus geltoki ondoan; eta ETEO ikastetxearen atzealdean.



MIREIA BIKUÑA

Patinaje ikastaroko neska-mutikoak, martitzenean, irakaslearen agindua jarraitzen.

KIROLA > IZENEMATEA

Lekua dute udako kirol kanpainako bigarren txandan

Besteak beste, mendiko bizikletan, tenisean, mini-tenisen, pilotan, badmintonean, eskaladan eta jolasetan eman daiteke izena kiroldegian

M.B. > OÑATI

Udako kirol kanpainako bigarren txandan lekua dute oraindik. Horren harira, dei berezia egin dute Kirol arduradunek. "Batzuek uste dute zozketa bidez zehazten dugun izenematea buka-

tu ondoren ezin daitekeela eskaintza gehiago aukeratu. Lehen txandan talde gehienak bete egiten dira, baina bigarren leku gehiago egoten da. Taldeak osatu arte izena eman daiteke", esan digute kiroldegian.

TALDE BATZUETAN BAKARRIK

Hilaren 12tik 23ra egingo dute kirol kanpainako bigarren txanda. Eskaintza batzuetan taldeak osatu dituzte, baina beste askotan aukera dago izena emateko, ordutegi zehatz batzuetan. Hain

justu ere, mendiko bizikletan, tenisean, mini-tenisean, patina-jean, pilotan, badmintonean, squashean, eskaladan, jolasetan eta skatean daukate lekua. Interesatuak kiroldegiko bulegoan eman behar dute izena: astelehenetik egubakoitzera 11:00etatik 13:15era eta martitzenetan eta eguenean 11:00etatik 13:15era eta 17:00etatik 19:00etara.

ABUZTUAN ESKAINTZA GUTXIAGO

Abuztuan herrian geratzen direnek ere kirola egiteko aukera izango dute. Udako kirol kanpainaren hirugarren eta laugarren txandak abuztuaren 3tik 13ra eta abuztuaren 17tik 27ra egingo dituzte, hurrenez hurren.

Dena den, abuztuan eskaintza txikiagoa da. Interesatuak mini-tenisaren, tenisaren, igeriketaren eta ur-jolasen artean aukeratu beharko dute.

Abuztuko txandaren baten parte hartu gura dutenak kiroldegian eman beharko dute izena. Talde guztiek goizez jardungo dute: mini-tenisa eta igeriketa 10:30ean, igeriketa 11:00etan, eta tenisa eta ur-jolasak 11:30ean.

LEHEN TXANDAN BUKATZEAR

Gaur bukatuko dute kirol kanpainako lehen txanda. 575 neska-mutikok hasi zuten udako kanpaina ekainaren 28an. Urtero moduan, patinajea (142 ume), tenisa (136) eta batuka (115) izan ziren kirol eskaintza arrakastatsuenak. Mini-tenisak (91), eskaladak (55), badmintonak (42) eta spinningak (39) ere erantzun ona izan zuten umeen artean.

Bestalde, txanda bakarreko eskaintzartan 287 ume ibiliko dira hilaren 23ra arte.

AUZOAK > FESTAK

Astotrastoren jaitsierarekin ospatuko dituzte Trianako jaiak gaurtik domekara arte

Erromeria, umeendako ekintzak, mus txapelketa eta auzo-afaria egingo dituzte, besteak beste

M.B. > OÑATI
Astotrastoren jaitsierarekin hasiko dituzte Triana auzoko jaiak gaur 19:00etan. Ondoren, 19:30ean txorimaloekin kalejira egingo

dute. Hortik aurrera, askotariko ekitaldiak egingo dituzte domekara arte. Gaur arratsaldean eta gauean Luhartz taldeak egingo du erromeria.

30. MUS TXAPELKETA
Bihar, 11:30ean umeendako marrazki lehiaketa egingo dute. Ondoren, sariak banatuko dituzte parte-hartzaileen artean.

16:00etan 30. mus txapelketa jokatuko dute. Parte-hartzaileek izena eman dezakete txapelketa hasi aurretik. 17:00etan neska-mutikoen jolasak eta eskulanak egingo dituzte. Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleen laguntzarekin kalejira egingo dute txorimaloek, 19:00etan hasita. Jarraian, pintxo-poteoa egingo dute.

BI TALDEREN ERROMERIA
Trianako Jai batzordeak afaria egingo du zapatuan. 21:00etan elkartuko dira Aterpe elkartean jaiei buruz berba egiteko. Biharko erromeria bi taldek egingo dute; hain justu ere, Maku-lu Ken eta Skastik taldeek egingo dute dantzaldia, 23:00etan.

Parrandarako gogoia dutenendako, 03:30ean txokolate-jana egingo dute auzoko txosnan. Ondoren, sokasalto saioa egingo dute.

DOMEKAKOAK
Domekan, txistulari bandak alaituko du auzoa. 10:00etan diana egingo dute. 12:00etan auzoko hildakoen aldeko meza egingo dute San Martingo ermitan. Ondoren, luncha egingo dute. Jaiei bukaera emateko herri bazkaria eta erromeria egingo dituzte. Agur, Gorka eta Miren taldearen musikak agurtuko ditu Trianako jaiak, 18:00etatik 23:00etara. Erromeriaren atsedenaldian saldutako txartelen zozketa egingo dute.

Ikasle txiletarrei harrera egin zien alkateak

Oñatiko alkate Lourdes Idoiagak Mondragon Unibertsitateko 19 ikasle txiletarri harrera egin zien martitzenean. Ekitaldian egon ziren, baita ere, Enpresa-gintzako dekanok Lander Beloki, Salamancako (Txile) alkate Gerardo Rojas eta Los Pelambres fundazioko presidente eta gerente Ramon Jaras eta Manuel Farias.

Muk Salamancan martxan jarritako ikastaroaren amaiera ekitaldia izan zen. Zazpi hilabeteko ikastaroa egin dute hango negozio txiki eta ertainetako arduradunek. Azken bi asteetan egonaldia egin dute Euskal Herrian. Hainbat enpresa eta erakunde bisitatu dituzte.



MIREN MANIAS

LANA > KONTRATU BERRIAK

Udalak 19 langabe kontratatuko ditu aldi baterako, eta 144 eskaera jaso ditu

Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzarekin 14 langabe kontratatuko dituzte eta INEMekin elkarlanean beste bost

M.B. > OÑATI
Udalak 19 langabe kontratatuko ditu Eusko Jaurlaritzaren eta INEMen laguntzarekin. Eskaera guztiak aztertu eta lanpostu bakoitzerako pertsona egokienak aukeratu ondoren udal ardu-

radunen asmoa da 19 langabeak uztailan lanean hastea.

ALDI BATERAKO KONTRATUAK
Aldi baterako kontratuak dira, baina Udalak egindako deialdiak erantzun ona izan du langabeen artean. Guztira, 144 oñatiarrek eman dute izena udal bulegoetan, eta horietako batzuek lanpostu bat baino gehiagorako eskaera egin dute. Peoi eta ofizial lanerako jaso dituzte eskaera gehien (113). Bestalde, artxiboko lanerako 62 eskaera jaso dituzte, auto-enpleguaren inguruko lana egiteko 19 eskaera eta informatikarri lanean jarduteko 13 eskaera.

JAURLARITZA ETA INEM
Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin 14 langabe kontratatuko ditu Udalak sei hilabeterako. Euren soldata gordina 1.600 eta 2.200 euro artekoa izango da. Langabeziagatiko prestaziorik jasotzen ez duten herritarrek edota diru-sarreraren berme-errenta delakoa jasotzen duten herritarrek izango dute lehentasuna. Bestalde, INEMekin elkarlanean bost langabe kontratatuko dituzte. Haiei hiru edo lau hilabeteko kontratua egingo diete. Lanpostu horiek eskuratu ahal izateko jarritako baldintza bakarra langabezian egotea izan da.

> DEIALDIA
Bihar 09:00etan jokatuko dute herri mailako arrantza txapelketa Torreazon, Arantzazu errekan

Pago Uso elkarteak eta Alzu ehiza eta arrantza dendak antolatuta herri mailako arrantza txapelketa jokatuko dute bihar, 09:00etatik 12:00etara. Denbora horretan amuarrain gehien harrapatzen duenak irabaziko du txapelketa. Berdinketa bada, amuarrainen pisua hartuko dute kontuan. Bukaeran, sariak banatu eta hamarretakoa egingo dute Torreazon bertan. Izenematea Pago Uso elkartean edo Alzu ehiza eta arrantza dendan egin daiteke.


> DEIALDIA
Aloña Mendikoek aste bukaerako mendi irteera egingo dute Pirinioetara hilaren 17tik 18ra

Aloña Mendi elkarteko mendi sailak Pirinioetara irteera antolatu du hilaren 17rako eta 18rako. Dagoeneko zabalik dute izenemate epea: hilaren 14a baino lehen egin behar da Aloña tabernan. Bazkideek 50 euro ordaindu beharko dituzte eta ez bazkideek, 60 euro. Hilaren 17an 13 kilometroko zeharkaldia egingo dute eta hilaren 18an, 18 kilometrokoa. Informazio gehiago gura duenak www.alona-mendi.com webgunean kontsulta dezake.

HIRIGINTZA > ARAU ALDAKETA

Hamaikabat ez dago ados Tubos ingurunerako asmoekin

Ingurune horren izendapen aldaketa egiteko modua salatu du eta etxebizitza "gehiegi" eraiki gura direla uste du: 290, hain zuzen ere



Herriko iparraldeko sarreran dagoen ingurunearen proiektua: etxeak eta eskuman unibertsitatea -gurutze itxurakoa. UDALA

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Herriko iparraldeko sarreran dagoen Tubos lantegia egondako alderdiaren arau aldaketari hasiera ematea onartu zuen udalbatzak maiatzaren 3an. Arau aldaketarekin industria erabilerrako lurzorua hezkuntza ekipamendurako eta etxebizitzak egiteko izendatuko dute. Arau aldaketa horri alegazioak aurkezteko epea martitzenean bukatu zen eta hiru aurkeztu dituzte, tartean Hamaikabat alderdiarena.

ETXE GEHIEGI, APARKALEKU GUTXI

Hamaikabatek salatu du izendapen aldaketa hori kontu garrantzitsua dela "etxe mordoa egingo dituztelako bertan", eta herritarrek ez dutela behar besteko argibiderik izan: "Horregatik, geure aldetik informatzen ahalegindu gara". Miguel Angel Delgado EAko zinegotzi izandakoak azaldu zituen Hamaikabatek dituen

arrazoiak alegazioa aurkezteko. Arau aldaketa puntual baten bitartez egin beharrean izendapen aldaketa hori, Plan Orokorren berrikuspenaren barruan kokatu beharko litzatekeela uste dute, "kontu benetan garrantzi-

tsua" delako. Gainera, alderdi horretarako aurreikusitako etxe kopuruarekin ez datoz bat -290-, ezta eraikin motarekin ere -tartean 11 solairuko garaiera duen dorrea-, "herriaren oraingo itxura apurtuko duelako".

Bestetik, bertan egingo duten hezkuntzarako ekipamenduren lagapenik ez dagoela ziurtatuta diote -Mondragon Unibertsitatearen fakultatea-. Eta oso aparkaleku gutxi aurreikusi dituztela ingurune horretarako

azaldu dute, "kontuan hartuta fakultate bat eta 290 etxe egongo direla". Bukatzeko, jakinarazi dute etxeak egiterakoan herrian espazio libreak sortu behar direla legez, eta ez dela halakorik egin oraingoan.

Hauteskundeei begira lanean hasita dago Hamaikabat

Debagoieneko herri guztietan dabil proiektuaren berri eman eta proposamenak zabaltzen Hamaikabat alderdia. Eta bloga martxan dutela jakinarazi dute. Datorren urteko hauteskundeei begira EAJrekin harremanetan dabiltzala onartu dute, baina "herri gehiengotik zerrendak osatzeko ahaleginak" egingo dituztela.



Ugarteburu, Debagoieneko koordinatzaile Bengoa, Delgado eta Murgiondo. M.A.

JENDARTEA > ZERBITZUA

Lokutorioa jarriko dute Mitarte kaleko 16an

Telefono, fax eta Internet zerbitzuak eskainiko dituzte; baita atzerrira dirua bidaltzeko aukera eman ere

gurean eta horiei guztiei zerbitzua emateko asmoarekin lokutorioa zabaltzea erabaki dute bertan bizi diren atzerritar batzuek. Hona izango duen ordutegia: 11:00-14:00 eta 17:00-22:00. Lokutorioak eskainiko dituen zerbitzuekin merkeagoa izango da jaioterrian dituzten senideekin

harremanetan izatea bai telefonoz, bai Internet bidez.

Udalak uste du erabiltzaile asko izango dituela lokutorio horrek gainerako herrietan legez -Arrasate, Bergara...-. Gainera, zerbitzuak ez dira bakarrik kanpotarrendako, edozein herritarrendako baizik.

M.A. > ARETXABALETA

Lokutorioa zabalduko dute gurean, Mitarte kaleko 16. atartean. Atzerrira merkeago deitzeko aukera eskaini gura dute eta hainbat zerbitzu izango ditu: telefono, fax eta Internet -txata, helbide elektronikoa...- zerbitzuak; atzerrira dirua bidaltzeko aukera; eta telefono txartelen salmenta eta kargatzeko aukera. Aste-an aurkeztu dute baimen eskaera eta irailean zabalduko dute.

MERKEAGO DEITU

Hainbat herrialdeetatik etorritako gero eta etorkin gehiago dago



Mitarte kaleko 16. atartea, lokutorioa jarriko duten lekua. M.A.

> ERRETIRATUAK

Hondarribira doaz Basotxoko kideak hilaren 15ean eta bigarren autobusa jartzekotan daude

Basotxo erretiratuen elkarteak Hondarribi aldera egingo du irteera hilaren 15ean, eguna: Pasaian bueltatxoa, itsasontzian ibili, Jaizkibel ikusi eta Guadalupeko ama bisitatu. Txartelak banatzen martitzenean hasi ziren eta ordubetea beteta zegoen autobusa. Horregatik, beste autobus bat jartzekotan dira eskaera egonez gero.

> OSPAKIZUNA

San Kristobal jaiak ospatuko dituzte Larrino auzoan bihar, meza esan eta afaria eginda

Bihar, hilak 10, San Kristobal eguna da, Larrino auzoko zaindaria. Hala, kanpai hotsekin iragarriko dute eguna (12:00) eta meza esan gero (12:30), Aretxabaleta abesbatzak lagun eginda. Moka-dutxoa eskainiko dute ostean. Eta auzoko bizilagunek afaria izango dute San Kristobal elkartearen (21:30).

> IKUSKIZUNA

Zirkun taldeak 'Tina' txotxongilo saioa eskainiko du eguenean Arkupen, umeendako

4 urtetik gorako neska-mutikoei *Tina* ikuskizuna izango dute Zirkun taldearen eskutik datorren eguenean (17:00) Arkupen.

Uztailaren 22an, ostera, Hortzmuga taldeak *Superplast* antzez-lana eskainiko du (19:00), familia giroan ikusteko. Bi ikuskizunak debalde dira.

Inazio Galdos > Jesuita

"Hezkuntzak garapenaren ateak zabaltzen ditu eta horren alde egin dugu; 820 ikasle ditugu"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Jesuita aretxabaletarrak 59 urte daramatza Indian, Gujerat estatuan, adivasi leinukoen artean. Anaia bikia ikusten Venezuelan ostan gure artean dago orain. Las-ter itzuliko da Indiara berriro, argi dauka eta lanean jarraituko duela.

Gujeraten bizi zara; non dago?

Bombay hiritik 300 kilometro iparraldera, oihanean. 58 milioi lagun bizi dira, guztiak adivasiak; Indiako aborigenak dira horiek; hau da, lehen biztanleak.

Hainbeste urtean asko aldatu-ko zen India, ezta?

Bai, 59 urtean izugarri aldatu da, hobera noski. Ni iritsi nintzenean lehorten handiak egoten ziren, eta, ondorioz, gosesteak. Basoko zuhaixken sustraiak jaten zituzten orduan askok, eta goseak hil ere egiten ziren. Orain ez; gure eskualdean, behintzat, ez.

Lan handia egin duzue, orduan.

Bai, eta lan hori egiteko hemengo laguntza izan dugu, bai Aretxabaletako Udalaren alde-tik, bai Hiruatx elkartearen alde-tik. Horiekin batera Arrasateko Harreman elkartek, Aldundiak, Jaurlaritzak... eta lagun askok jarraitzen dute laguntzen.

Eta zertarako dira laguntzok?

Jivan Jyot –bizia eta itxaro-pena– izeneko gobernuz kanpo-ko elkartea sortu genuen dirua banatzeko. Eta hiru kontutara bideratzen ditugu: iraultza ber-dea, nekazaritza garatzeko; iraultza zuria, esne produkzioa hobetzeko; eta hezkuntza lantzeko.

Zer dira iraultza berdea eta zuria?

Gure zonan hiru hilabetetan bakarrik egiten du euria eta lehen lana lurrak leundu, putzuak egin eta ura gordetzea izan zen nekazaritza garatu ahal izateko. Ondo-



Inazio Galdos joan den egubakoitzean Herriko Plazan.

M.A.

"Iraultza zuriarekin esne kooperatibak jarri ditugu abian, guztiak emakumeek gidatuta"

"79 urte beteko ditut San Inazio egunean, baina osasun ona dut eta lanean jarraituko dut"

rioz, hazi hobeak ekoiztu ditugu eta arrozaren produkzioa lau-koiztu egin da.

Iraultza zuriarekin, ostera, esne kooperatibak jarri ditugu abian, guztiak emakumeek gidatuta. Hala, duintasuna eskuratu dute eta independentzia ere bai.

Eta hezkuntzan ere aurrera-pauso handiak eman dituzue?

Izugarriak; izan ere, guk argi genuen garapenik ez dagoela hezkuntza barik. 1985ean lur batzuk

erosi eta lokatzezko eraikina egin genuen. Gero, herriz herri joan nintzen ikasle bila eta 27 mutil eta bi neska bakarrik lortu nituen. Gaur, 5 eta 17 urte arteko 412 neska eta 408 mutil ditugu. Barnetegian egoten dira eta hezkuntza eta elikadura jasotzen dituzte.

Krisia ez duzue horrenbestearaino igarri Indian, ezta?

Ez, ez hemen beste. Eskulan merkeagoa dago han eta hemen- go enpresek harantz jo dute. Oihalgintzan eta trenbideetan, esaterako, mundu mailako poten- tzia da. Hala ere, asko dago hobe- tzeke oraindik, gosea pasatzen dutelako 200 milioi lagunek.

Erretiroan pentsatu duzu?

Ez, horixe. 79 urte beteko ditut San Inazio egunean, baina osa- sun oso ona daukat, nik uste dut beti lanpetuta nagoelako –42 urte parroko lanetan–. Adivasiek asko maite gaituzte eta bertan jarrai- tuko dut lanean, hil arte.

KULTURA > ZINEMA

Aratzekoek egindako filma martitzenean

'Are-Baleko sekretoak' film laburrak lehen saria eskuratu du Atzegik antolatutako lehiaketan

M.A. > ARETXABALETA

Adimen urritasuna dutenek egindako zinema izango da hilaren 13an Arkupen. Bi film eskainiko dituzte: Aratzeko kideek egindakoa eta John Andueza arrasatearrak zuzendutakoa. Bi saio egongo dira (19:00ak eta 21:00ak) eta sarrera 5 euro da.

LIBURU BATEKO PASADIZOAK

Gipuzkoako Atzegi elkartek antolatutako film laburren hiru- garren lehiaketan lehenengo saria eskuratu duen *Are-Baleko sekretoak* filma emango dute. Urri- tasunen bat dutenek etorkizune- an zelako bizimodua izango duten erakustea zen helburua, eta hala-

xe egin zuten Aratzeko 16 kidek. Irakurtzen dabilen liburu barruan sartu eta bertako pasadizoak bizi izaten dituen lagun baten istorioa kontatu dute aretxabaletarrek 11 minutuko filmean.

John Andueza arrasatearrak zuzendu eta adimen urritasuna dutenek egindako *Simplemente* ere eskainiko dute. Gaztelaniaz da eta azpitituluak euskaraz izan- go ditu. 77 minutu irauten du.

Abantailaz
betetako kluba!Goiena
kluba

EKAINEKO IRABAZLEAK

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro

REALEKO GORRO ETA BUFANDA

Realeko gorro eta
bufanda bat.

IRABAZLEA

**Amaia
Bikuña Mtnez.
de Zuazo**
Oñati

REALEKO MOTXILA

Realeko
motxila bat.

IRABAZLEA

**Ines
Elortza
Iriarte**
Bergara

MUNDUMIRAKO MATERIALA

Mundumirako
material sorta.

IRABAZLEA

**Gurutze
Arizabaleta
Okina**
Arrasate

UMEENTZAKO PUZZLEA

Ikastolen elkarteko
umeentzako puzzlea.

IRABAZLEA

**Maria
Lazkano
Balanategi**
Arrasate

APIRILA-EKAINA SARI NAGUSIA PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATU DA GAU BAT TXOPEBENTA LANDETXEAN

• Tel.: 94 625 49 23
629 45 50 79
• Basetxeta Auzoa,
Gautegiz-Arteaga (Bizkaia)
• www.nekatur.net/txopebenta
• www.toprural.comMaiatzean 20 urte bete genituen;
Estatuko lehenengoak izan ginen.

IRABAZLEA

**Juan Jose
Madinabeitia
Arando**
Arrasate

KULTURA > 'ERREKAN GORA' JAIALDIA

Musika klasikoak hartuko du gaur txalapartaren lekukoa

Bostarte Haize
Boskoteak joko du Ibarraundi museoa, 22:30ean

Bihar kontzertu liriko instrumentala dago ordu berean, Azkoaga Enea hoteleko terrazan

M.B. > ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkarteak antolatutako *Errekan gora* jaialdiaren harira, hitzordu bikoitza izango dugu gertu asteburu honetan. Gaur, egubakoitza, Bostarte Haize Bostekoaren emanaldia egongo da Ibarraundi museoa, 22:30ean.

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden bost talde sinfoniko profesionaletako bat da Gasteizko Udal Musika Banda eta haren magalean sortu da Bostarte Hai-

ze Boskotea. Alberto Itoitzek, Blanka Diaz de Gereñuk, Iratxe Lomak, Gaizka Gaztelurrutiak eta Elena Romok osatzen duten taldeak ganbera-musika egiten du, helburu bikoitzarekin; alde batetik, modu horretako taldeen-dako egindako musika zabaltzea gura du; eta bestetik, boskoteak erabiltzen dituen instrumentuen baliabideak ezagutaraztea bilatzen du.

Gaurko emanaldian erreperitorio zabala eskainiko dute, garai askotako musikak eta estilo ezberdinak garatuz. Besteak beste, honako musikarien lanak entzun ahal izango dira: Debussy, Mozart, Mussorgsky, Albeniz, Haendel, Aranburu eta Gutierrez.

BIHAR, KONTZERTU LIRIKOA

Bihar, berriz, kontzertu liriko instrumentala entzuteko aukera egongo da Azkoaga Enea hoteleko terrazan. Maite Gomez, Eduardo Fernandez, Anjel Lopez de Pariza, Martxe Gartzia de Afleu, Unai Morales eta Luisa Saez de



Bostarte taldeko kideak.

GOIENKARIA

Jauregi musikariek parte hartuko dute horretan. 22:30ean hasiko den emanaldia lasaia eta atse-

gina izango da, oso gomendagarria, soinu eta argiekin jolastuz giro berezia sortuko duena.

KULTURA > ERAKUSKETA

Eskoriatzarren lanak ikusgai daude

Ibarraundiko hormetan eskegita egongo dira hilaren 30era arte 14 eskoriatzarren 28 margo

M.B. > ESKORIATZA

Margo erakusketa dago uztailaren hasiera ezkerreko Ibarraundi museoa. Hainbat eskoriatzarrek egindako lanak ikus daitezke han hilaren 30era arte, honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera bitartean, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Hain justu ere, honako margolarien 28 lan daude museoko hormetan eskegita: J. M. Agirre Zenitagoia, Belen Azkargorta, Beni Flores, Emili Gartzia, Jessica Gomez, Julia Gutierrez, Bego Lapuente, Elena Leon, Patxi Magu, Mila Madinabeitia, Maitane Raso, Rafael Raso, Roy Tomas eta Pepi Salgadorenak.



Hitzaldiak egiten diren aretoan daude margoak.

MIRIAN BITERI

> GAZTEAK

Uztailaren 16ra atzeratu dute herriko skate jaialdia

Joan den uztailaren 3an egin beharreko skate jaialdia bertan behera geratu zen. Skatean adituek direnek parkeko elementuetan putzuak zeudela ikusita eta patinek irrist egiten zutela ikusita, lehiaketa atzeratzea erabaki zuten.

Hala, jaia uztailaren 16an egingo da, 18:00etan, herriko tren geltoki zaharrean dagoen skate parkean. Bi mailatan egongo da lehiaketa: 12 urtetik beherakoena, lehenengo, eta 13 urtetik gorakoena, geroago. Irabazleek skate materiala lortuko dute.

> HITZORDUA

Eskoriatza kirol elkarteak gaur egingo du batzar nagusia

Eskoriatza kirol elkarteak urteroko ohiko batzar nagusia egingo du gaur, egubakoitza, arratsaldean. Lehenik eta behin, 2009-2010 denboraldiko kirol balantzeaz jardungo dute, eta jarraian, denboraldi bereko balantze ekonomikoak.

Horren ostean, datorren denboraldiari begirako kontuak aurkeztuko dituzte, baita kirol organigrama eta proiektuak ere. Batzar nagusia 19:00etan hasiko da, kultura etxean.

> AISIALDIA

Erantzun ona izan du orain arte kanpoko igerilekuak

Kiroldegitik jakinarazi digute ekainaren erdialdean zabaldu zenetik, jende asko izan dela kanpoaldeko igerilekuan. Horrekin batera, gogorarazi gura izan dute 18 urtetik beherakoendako sarrerak 2,30 euro balio duela, eta gainerakoendako, 4,18. Esandako instalazioak honako ordutegian daude zabalik: astelehenetik zapatara, 10:00etatik 20:00etara, eta domeketan, 10:00etatik 14:30era.



■ Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

■ Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxe: 943 71 31 45

> JAIK

Alardeko entsegu orokorra martitzenean egingo dute, 20:00etan

Dagoeneko hasi dituzte Mai-ruaren Alardeko entseguak. Atzo egin zuten lehen entsegu orokorra; eta hurrengo martitzenean izango da, hilak 13, 20:00etan, Herriko Plazan.

Orain arte taldeka egin izan dituzte entseguak. Adibidez, buruzagia, mairu erregea eta segizioa, alde batetik; eta dultzainariak eta perkusioak, bestetik. Bada, orain denek batera egingo dute. Uztailaren 17an, alardearen aurretik, frontoian egingo dute entsegu orokorra.

> JAIK

Lepoko zapiak gaurtik aurrera egongo dira salgai tabernetan

Jaietako lepoko zapiak gaur, egubakoitza, jarriko dituzte salgai 3 eurotan. Herriko tabernetan egongo dira eskura zapiak.

Zapiaren irudia Valen Monuxek egin du eta 2009ko Mairuaren Alardearen egitura irudikatzen du. 2009ko alardea aldaketen urtea izan zen: Mairuaren Alardea biziberritu eta egokitu zen urteko egitura sartu da zapietan, alarde gogoangarria denon akorduan izateaz gain eskura ere edukitzeko. 400 zapi egin dituzte.

OSOKO BILKURA > AZPIEGITURAK

Estala eta frontoia erabiltzeko arauak onartu dituzte

Arauak onartzeaz gain, horiek erabiltzeko tarifak ere onartu zituzten eguazteneko osoko bilkuran

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Udal Pilotalekua eta Estala futbol zelaia erabiltzeko arauei hasierako onespina eman zitzaizen eguazteneko osoko bilkuran. Andoni Azkargorta Kirol zinegotziak azaldu zuen: "Azpiegitura horien erabilera itxia ez izatea eta jendeak erreserba egiteko aukera izatea da asmoa". Batez ere, azkenaldian sortu den eskaerari irteera emateko egingdako proposamena da.

Antzuolako Udal Pilotalekua areto-kiroletan jarduteko arautu dute. Pilotalekuan lehentasuna emango zaio pilota sustatzeko ekintzei. Pilotalekua zabalik egongo da astelehenetik egubakoitzera: 09:00etatik 12:30era, herriko ikastetxearendako; 12:30etik 18:00etara, erabilera libre edo talde antolatuendako; eta 18:00etatik 22:00etara, kantxa erresebatuko da pilotan jokatzeko edo elkarrekin beste kirol batzuetan jarduteko.

FUTBOL ZELAIA

Estala futbol zelaia futboleant jokatzeko izango da, betiere, futbol sustatzeko asmoz. AKE futbol taldeak izango du Estala era-



Udal Pilotakua erabiltzeko arauak onartu dituzte.

A.E.

biltzeko lehentasuna. Estala libre baldin badago txanda eskatu beharrik ez da izango, eta ez da ordaindu beharko. Erabilera libreko orduetan hurrek eta 18 urtetik beherako gazteek izango dute lehentasuna.

TARIFAK

Estala erabiltzeagatik herritarrek 30 euro zelai erdia eta 45 euro zelai osoa ordaindu beharko dute.

Kanpotarrek ordainduko dute 45 euro zelai erdia edo 60 euro zelai osoa.

Eskolako aterpea erabiltzeko araudia bertan behera geratu zen Pilar Etxanizek eskatuta. "Kirol ikuspegitik egindako araudia da. Umeendako eremu libre bakarra da eta gune barik geratuko lirake", esan zuen Etxanizek. Hala, araudia berrikusi eta irailerako utzi zuten gaia.



GAIZKA ASENSIO

Txirrindulari challengeko azken proba

San Martzialgo igoera izan zen Antzuolako txirrindulari challengeko azken proba. Orain arteko bost probak amaituta, hauek izan dira garaileak: infantiletan Aritz Kortabarria; alebinetan Mikel Arregi; benjaminetan Iñigo Aranburu; nesketan Jone Jauregi; aurrebenjaminetan Ibai Larrea; eta txikienetan Alan Payn.



**DESKARGA
AUTOAK**

*Jai zoriontsuak
antzuolar guztioi!*

Antigua auzoa z/g Antzuola.
Tel.: 943 76 62 75



Lantegia:Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35
ANTZUOLA

Jai zoriontsuak
antzuolar guztioi!

Itzar

**LIBURU DENDA
ESTANKOA**

JAI ZORIONTSUAK!

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel. / Faxes: 943 76 60 62



Germaine de Capuccini produktuak

Laser bidezko depilazioa
Informa zaitetz!



Ondo pasau
Antzuolako jaixetan!

Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

**GOROSTI
Taberna**

Zorionak, Antzuola!

943 76 62 96
Zurrategi plaza
ANTZUOLA



Zorionak antzuolar guztioi!

659 57 50 97

Kalebarren 13 ANTZUOLA

JAIK > SAN MARTINAK

Beroari umorez egin zioten aurre herritarrek jaietako astelehenean

Koadrilen arteko pikean sei talde izan ziren lehian; Uski Uzkuertuak izan zen irabazlea

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Bereziki herritarrendako eguna zen jaietako astelehena eta giro berezia izan zen goizetik. Eguraldiak ere lagundu zuen, nahiz eta gaztetxoek beroaren erruz zertxobait sufritu zuten goizeko jolasetan. Eguerdian, Hipo eta Tomax pailazoen saioak txikiñen txaloak ekarri zituen atzetik.

Arratsaldean, koadrilen arteko pikean sei talde izan ziren lehian eta jokatuak lau proben ondorioz, Uski Uzkuertuak izan ziren garaileak. Euren eraman zituzten txapeldunendako txapela eta biserak. Katxi-toldo lehia gertatu zen ikusgarriena aurten ere. Ordurako ikusle ugari batu zen pikea jarraitzeko.

BERTSO AFARIA GAUR

Asteburuan hainbat ekitaldi izango dira jaiei bukaera emateko. Gaur, barikua, bertso afaria izango da Jon Maia, Julio Soto eta Manex Agirrerekin. Bihar, zapatua, gaztetxoek pilota partiduak 10:30ean eta 22:30ean jaialdia frontoian: Larrañagak eta Iruretak lau t'erdia barruan jokatu dute eta jarraian Andreu-Uzkudun eta Mendizabal-Aldape bikoteen arteko norgehiagoka izango da.



Aramaixo Label taldekoak, trenaren proban.

JOSEBA ZUNZUNEGI



Platinazko Gibelak taldeko kide bat, estutasunetan.

JOSEBA ZUNZUNEGI



Lehiakide bat patata jokoan.

J.Z.



Katxi toldoarekin zailtasunak izan zituzten Albiñako Lamiak taldekoek.

J. ZUNZUNEGI



Eguraldia lagun, 140 lagun inguru batu ziren asteleheneko herri afarian, plazan.

NAIA BAILEZ



Gaztetxo ugari jardun zuten astelehen goizeko jolasetan

LIERNI ALTUNA

JENDARTEA > ALAIK ELKARTEA

Alaiak erretiratuen elkartearen txangoa Santillanara hilaren 23an

E.M. > ARAMAIO

Aramaioko erretiratuei zuzendutako bidaia iragarri dute datoren uztailaren 23rako. Egun osoko irteera izango da Kantabriara, Santillana del Marrera egingo

dutena. Irteera 07:30ean egingo dute kiroldegia ondoan eta itzulera, berriz, iluntze aldera izango da.

Egitarauari dagokionez, Santillanako kolegiata eta Altamira-

ko koben erreplika ikustera joango dira Aramaioko erretiratuak.

Izenematea lehenbailehen egitea eskatu dute, plaza mugatuak dira-eta. Hain zuzen ere, 60 lagunendako tokia baino ez dago. Interesatuak 30 euro ordaindu behar dituzte Euskadiko Kutxan. Argibide gehiago, erretiratuen elkartearen bertan.

KZGUNEAREN OHARRA

Udalak aditzera eman duenez, Aitor Madrid KZGuneako monitorea uztailaren 12an eta 16an

izango da Aramaion, 16:00etatik 20:00etara. Ohi denez, hainbat ikastaro egiteko aukera eskaintzen du KZGuneak. Argibide gehiago, 945 44 54 36 telefonon.

GAZTETXOAK, LEGUTIORA

Bestalde, Zuiako Koadrilako gaztetxoek Euskararen Eguna ospatuko dute Legution hilaren 22an. 12 urtera arteko gaztetxoei egin diete parte hartzeko deialdia. Izenematea liburutegian egin daiteke. Horretarako azken eguna uztailaren 16a izango da.

> UDALA

'Aramaixo baserri barri' proiektuaren aurkezpena

Udalak aditzera eman duenez, Aramaixo Baserri Barri egitasmoaren aurkezpena egingo dute eguaztenean, uztailaren 14an, Sastiñan, 19:00etan. Nekazariei eta baserriko produktuen kontsumitzaileei dei egiten diete eguazteneko bileran parte hartzeko.

ELGETA > UDALEKUAK

Goizean goizetik hamaika jarduera umeen gozamenerako

Astelehenean hasi ziren udalekuak; bost hezitzaile eta 2 eta 10 urte bitarteko 58 ume elkartzen dira

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA
Gero eta ume gehiagok ematen dute izena udaleku irekietan. Hori horrela, aurten bost hezitzaile ipini ditu Udalak. Umeen adinera egokitutako aktibitateak egiteko bi taldetan banatu dituzte aurten ere gaztetxoak; txikien taldea (2-5 urte) eta nagusien taldea (6-10 urte). Mireia Berriozabal, Nagore Oianguren, Maialen Elortza, Ane Elortza eta Etor Garate elgetarrak ari dira hezitzaile lanetan. Sanferminak izan dira prestatutako jardueren ardatz nagusia lehenengo aste honetan. Jarraian etorriko dira munduko kulturen inguruko astean baratze lanen inguruko astea eta sormen astea. Txangoak, tailerrak, eskulanak eta mozerroak egingo dituzte.



Aurtengo bost hezitzaileak ume talde batekin.

L.Z.

IGERILEKUAK MAALAN
Aurten ere Maalan igerilekuak ipintzea da asmoa. Hasiera baten, hilaren 21ean eta 22an ipiniko

dituzte, baina urtero moduan eguraldiak izango du azken hitza. Egun horietan ur jolasak egingo dituzte udalekuetako umeek.

UDA KIROLA
Bi jarduerak egin dute aurrera, astelehenetako tai txi taldeak eta barikuetako irristaketa saioek.

Isaac Peña bergararrak eraman du aurten orga

Peñak astelehen arratsaldean eraman zituen etxera orgako jaki goxoak. Athletic taldearen lagunarteko presidente Felix Irizarrekin elkartu zen eta 760 zenbakidun txartela aurkeztu ostean eskuratu zuen saria. "Harrera oso ona du urtero egiten dugun zozketak", adierazi du Irizarrek. "Txartelak oso ondo saltzen ditugu, batez ere feria egunean".



L.Z.

ELGETA

Jende kopurua eta giroa, iazko antzera

Lehen aldiz ipinitako lanabes zaharren erakusketak harrera ona izan du

L.Z. > ELGETA
"Eguenean herri giroa nagusitu zen. Barikuan euren eguna izan zuten umeek eta erretiratuek, eta gaztetxean gauza asko antolatu zituzten. Herri Egunean ia 600 lagun egon ginen bazkaltzen eta domekan argi geratu zen Elgetako feriak bere lekua duela. 17 idi buru izan ditugu aurten eta kanpotik ere jendea etorri da. Jaiak ondo joan dira. Ibili den jende kopurua eta egon den giroa iazko antzerakoak izan dira". Oxel Erostarbe alkateak jaiak amaitutakoan egindako lehen balorazioa da. Pili Arin elgetarra ere pozik agertzen zen ferian: "Tresneria zaharra ekarri du aurten eta arrakasta handia izan du. Gauza asko ikasi ditut. Erakutsi ere bai".

> ELGETA
Uztailan ez du etenik izango: hitzordua dute eguaztenetan

Elgetako zineklubak ez ditu, oraingoan, oporrak hartuko. Uztailan ere zinemazaleak eguaztenetan elkartuko dira Espaloian filmak pantaila handiak ikusteko. Hitzordua 21:30erako egiten dute. Oraingo astean, Alberto Arcek zuzendutako *To shoot an elephant* filma ikusi dute. Datorren asterako, hilaren 14rako, Bernardo Bertolucci zuzendariaren *El cielo protector* dute iragarritak; hilaren 21ean *Flower Power* Joel Hershmanen filma ikusiko dute eta hilaren 28an, Mario Camusen *Los santos inocentes*.

LEINTZ GATZAGA > LANAK

Pilotalekuko lanak egiteko dirulaguntza bila dabilta

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Aldundiak abian jarritako Landagipuzkoa egitasmoari esker pilotalekua konponduko dute aurten, eta herriko jaiak pasatu eta gero hasiko dituzte lan horiek, ondo bidean. Landagipuzkoak 60.000 euro jarriko ditu, baina

lanen kostua 114.000 euro da eta Aldundiko Kirol Departamentura ere laguntza eskaera bideratu zuten. Ezezkoa jaso dute departamentu horretatik eta orain beste laguntza batzuen bila jarraituko dute Udalaren kostua arintzeko asmoarekin.

> LEINTZ GATZAGA
Gaur arratsaldean ikastaroak egingo dituzte KZgunean

Aitor Madrid dinamizatzailea izango da gaur KZgunean (16:00-20:00) eta 16 urtetik gorakoendako ikastaroak eskainiko ditu –bi orduko saioak–: sare sozialak, Google-ek eskaintzen dituen tresnak, foroak eta blogak, wi-fi... Hilaren 23an itzuliko da dinamizatzailea KZgunera.

VICKY

edertze aretoa

Aurpegi eta gorputz tratamendu pertsonalizatuak.

- Aurpegi garbiketa

- Zimurrak

- Ahulezia

- Kouperosia

- Aknea

- Zelulitisaren aurkakakoak

Erreduktoreak algen estalkiarekin

- Depilazioa: argizariarekin eta elektrikoa

Pedikura eta manikura

Makillajea

Berehalako brontzeatua eguzki barik

Salbador 4, 2. ELGETA 616 58 17 81

TXIRRINDULARITZA > 65. ANTZUOLAKO SARIA

Antzuolako saria domekan, baina Elgetako mendiko kriteriumik ez

Amateur mailako lasterketaz beteta izaten dugun uztailan hitzordu nagusietako batek kale egingo digu aurten, Elgetako mendiko kriteriumak

XABIER URTZELAI > BERGARA

Joan den astean Gatzagan egin zuten Dorletako Ama sariak hasi zuen urtero uztailan izaten dugun amateur mailako lasterketa zerrenda. Aurtengoa, baina, zerrenda motzagoa izango da, 25 urteren ostean aurten ez dute-eta Elgetako mendiko kriteriuma antolatuko. Emilio Mandaluniz izan da urte hauetan guztietan lasterketako *alma matera*, eta iaz probako antolatzaile lanetatik erretiroa hartzearekin batera –omenaldia egin zioten lasterketan bertan– hartu du erretiroa probak berak.

Pena da, urte hauetan guztietan izen handiko lasterketa bilakatu da-eta Elgetakoa, baina egun horrelako proba bat antolatzeak lana ematen du, eta, esaterako, ondo dakite hori domekan

Antzuolako saria antolatuko duten Ayastuy lagunartekoek. Hala, bada, Fabrizio Ferrari ziklista izango da, oraingoz, Elgetako helmugan eskuak altxa dituen azkena.

DOMEKAN IÑAKI LETE MEMORIALA
Domekan (09:30) Antzuolan egingo dute Lehendakari txapelketarako baliagarria izango den Antzuola Saria, Iñaki Lete memoria.

Eta ikusteko dago joan den astean Gatzagan bigarren helmugaratu zen Pello Bilbao (Naturgas) Antzuolan izango den domekan. Ziklista horrek dagoeneko maiteminduta behar du Antzuolarekin, gazte mailan irabazi eta iaz amateur mailara salto egitearekin batera Antzuolan berriro altxa zituen-eta eskuak.



Iaz Antzuolan irabazi zuen Pello Bilbao (Naturgas) Dorletako Ama sarian izan zen domekan, maillot gorriarekin.

J. ARANTZABAL

ASENTZIO, ERABAKIGARRIA

Azken urteotako lasterketek erakutsi dute Asentzioko maldak erabakigarriak izango direla.

Lehenago Deskarga igoko dute (72. kilometroan), baina tropela erabat apurtuko duena Asentzio izango da. Iaz Bilbaok ez zuen

Antzuolan esprintik egin, ihes eginda iritsi zen-eta. Domekako lasterketako nondik norakoak, *Asteleheneko Goienkaria*-n.



ATEAK - LEHIOAK - ZORUAK
HORMA ARMAIRUAK

Antigua auzoa z/g
ANTZUOLA

Tel./ Faxe: 943 76 63 59

Jai zoriontsuak antzuolar guztioi!





AKE Squash taldeak antolatutako azken txapelketako argazkian Markus Schwarz eta Alberto Ferreiro. GOIENKARIA

SQUASHA > DEBAGOIENeko TXAPELKETA

"Ibarreko squashzaleok batzea da helburua"

Bihar, zapatuan, 09:30ean hasiko dute txapelketa, Musakolako kiroldegian

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Debagoieneko squashzaleek hitzordua dute bihar goizean, 09:30ean hasita, Musakolan. AKE Squash taldeak antolatu du txapelketa, eta bertako Iñaki Uribe-txebarriak azaldu digu txapelketa baino gehiago topaketa izango dela: "Txapelketa izena jarri dugu, baina helburua ibarrean kirol hau praktikatzen dugunok batu eta goiz pasa ederra egitea da".

"EZ DIRA EGUN APROPOSENAK"
Antolatzaileek ondo dakite horrelako topaketa bat antolatzeko ez direla egun aproposenak: "Uztaila izatearekin batera tartean san-

ferminak ditugulako!", adierazi du, barrez, Uribetxebarriak: "Baina guk ez dugu amorerik eman-go. Dagoeneko hamar lagunek eman dute izena, eta bihar bertan kiroldegira squashean jokatzeraz etorri nahi duenak zabalik izango ditu ateak, ez da arazorik egongo. Eta hurrengo hitzordua egiten dugunean askoz ere lagun gehiago elkartuko gara, seguru".

Hala, AKEkoek ahalegina egin nahi izan dute txapelketa ibarrera mugatzen: "Badakigu pare bat dei eginez gero beste klubetako jendea gustura etorriko litza-tekeela, baina ibarreko batze-ko asmoz egin dugu hitzordu

hau". Parte-hartzaileak bi kategoriatan banatuko dira, 17 urtez azpikoak eta seniorrak, eta partiduak federazioko araudia jarraituz egingo dituzte.

OPARI ETA GUZTI
Seniorrek 10 euro ordaindu beharko dituzte txapelketan esku hartzeagatik eta 17 urtez azpikoek, 5 euro. Ordainketa lehenengo partidua jokatu aurretik egingo da, eta parte-hartzaile bakoitzak kamiseta bat jasoko du opari. Horretaz gain, izena ematen duten guztien artean kirol materiala zozketatuko dute antolatzailaiek.

Squash txapelketak izango duen jokatzeko-sistema, berriz, jokalaria kopuruaren arabera izango da.

Debagoieneko Eskalatzaileak taldekoak, Rodellarren

Rodellarren (Huesca) egindako boulder txapelketan esku hartu zuten joan den asteburuan Debagoieneko Eskalatzaileak taldeko hamar lagunek. Zapatuko saioan Mikel Velascok finalerako txartela lortu zuen, maila handiko beste eskalatzaile batzuen aurretik sailkatuta. Domekan jokatutako finalean, baina, ezin izan zuen podiuma zapaldu, oso gutxigatik izan bazen ere. 20 urtetik azpiko kategorian, Mirian Mulas nagusiekin lehiatu zen, 10. sailkatuta.



DEBAGOIENeko ESKALATZAILEAK

MENDIA > NATURGAS ESPEDIZIOA

Broad Peak espediziokoak 6.200 metrora heldu dira

Iñurrategik, Vallejok eta Zabaltzak izotzezko pitzadura baten barruan pasa dute gaua

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE
Naturgas Broad Peak espedizioko kideak 6.200 metrora heldu ziren atzo. Sei orduko lana egin ondoren, izotzezko pitzadura baten barruan pasa zuten gaua.

Iñurrategik, Vallejok eta Zabaltzak uste baino bide hobearekin topatu zuten esan dute, izotz eremu askorik barik. Mendizaleek datozen egunetarako –hilaren 12ra arte– iraga-

rrita dagoen eguraldi lehorra aprobetxatu gura dute aurrera egiteko. Dena den, aurreikuspenek diote haizeak indartsu joko duela aste bukaeran.

ESTILO ALPINOAN
Naturgas espedizioak Broad Peak igotzeko aukeratu duen bidea historia bitan besterik ez da egin. Gainera, Iñurrategik, Vallejok eta Zabaltzak estilo alpinoan egingo dute.



Zabaltza, Vallejo eta Iñurrategi, Broad Peak-en. BASQUE TEAM

> TXIRRINDULARITZA
Hainbat lagun taldek antolatuta Tourra ikustera joateko irteera egingo dute uztailaren 20tik 22ra

Markel Irizar, Aitor Garmendia eta Jon Odriozola lagunartek antolatuta irteera egingo dute Tourrera. Uztailaren 20an eta 22an pasako da Tourra Tourmaletetik, eta bertan ikusiko dituzte bi etapa horiek. Izena emateko azken eguna uztailaren 14an izango da (130 euro). Izena emateko deitu 943 78 29 86 zenbakira.

ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA

%50eko deskontua urteko kuotan

Orain da garaia!

MATRIKULA EPEA
UZTAILAREN 7TIK 13RA

902 11 20 25
LANBIDE@ARIZMENDI.IKASTOLA.NET
WWW.ARIZMENDIPRO.EU

Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN VI. GOIENA ARGAZKI LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



GARIKOITZ ITURBE



ANE JAUREGI



MARTIN URIARTE ASKASIBAR

Har ezazu parte!

Oinarriak

- **Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.**
- **Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- **Argazkiak jasotzeko epea: uztailaren eta irailaren 17a bitartean.**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. BERGARA: Ibarra 6 (lehen, Arcelorren bulegoak), 20570. ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua edo Basabe poligonoa E-O-5, 20550 Aretxabaleta
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.

- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAn eta Goiena.net-n sortutako foto-blogean. GOITBn ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 4an jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalek osatuko dute.
- Epaimahaia argazkiaren kalitate, originaltasun eta balio historikoa hartuko ditu kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez balego, GOIENKARIAK aukeraketa egingo luke egokien irizten dituen irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAko artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

Sariak



1. saria

Canon EOS 1000D argazki kamera digitala eta KB photoestudioak emango dituen ikastaroetako batean %50eko deskontu bonoa. Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.

- 10 megapixel.
- Canon 18-55 mm f3.5-5.6 EF-S objektiboa.
- 2,5 hazbeteko LCD pantaila.
- Live View sistemarekin
- Flash eta guzti.



2. saria: Cantabriako Treceño herriko Hotel Palacio de Guevara-n astebukaera bateko egonaldia bi lagunendako. Gosaria eta larunbateko afari berezia barne Arrasate Bidaia-en eskutik.

3. saria: bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Laguntzaileak:



Canon



GURE AMETSA
JATETXEA

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

Goienkaria
ASTELEHENEN, aste bukaera osoa

Goiena.net

Goitb
Goiena Telebista

ARRASATE
IRRATIA



> **DANBAKA**
Goienak abian du Danbaka musika lehiaketaren 4. edizioa > **32**



> **IKASTAROA**
'Clown' ikastaroak emango ditu Oihulari Klownek Bergaran > **32**

> **ELIZABETH TORRES**
Arrasatearra da, 25 urte ditu, eta boluntario lan egitea gustatzen zaio; Atzegin dihardu, Txolarteko begirale gisa > **34**



Juana Mari Gallastegi > Argazkilaria

"Sentimenduak ukimenarekin transmititzen ditugu"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Juana Mari Gallastegik erakusketa zabaldu zuen aurreko egubakoitzean Bergarako Aroztegi aretoan. Tamaina handiko argazkiak eta erliebeak ikus daitezke *Argazkiaren larruazalak* delako erakusketan. Gallastegik gurasoei egiten die erreferentzia. Martitzenean erakusketan egon zen eta harekin berba egiteko aprobe txatu genuen.

Ukimenak garrantzi handia dauka erakusketan. Zergatik?

Sentimenduak ukimenarekin antzematen ditugu. Ikusmenak argazki bat edo beste aukeratzeko bidea ematen digu.

Aroztegin dauden lan gehienak erliebean egin ditut. Hala, argazkiak ukitu egin daitezke.

Zergatik erabaki zenuen erliebea lantzea?

Begi-lauso arazoa izan zuen amak. Poliki-poliki ikusmena galdu zuen. Orduan jabetu nintzen ez zituela nire lanak gehiago ikusiko. Itsuen lekuan jarri nintzen, eta erabaki nuen erliebea lantzea. Ukimenarekin ikusmenarekin transmititzen diren sentimenduak transmititu gura nituen. Lan asko egin ondoren, 1983an egin nuen lehen erliebea.

Bidaia baten ijito batekin egin genuen topo, emakume batekin. Hari egindako argazki batekin egin nuen lehen erliebea.

Ordutik hona lan guztiak erliebean egin dituzu?

Ez. Egia da erliebean lan asko egin ditudala, eta horietako batzuk Bergaran jarri ditut. Baina argazkigintzarako paper mota ezberdinak erabiliz argazki normalak ere egin ditut.

Argazkiaren larruazalak erakusketa propio egin duzu Bergarara ekartzeko.

Bai, hala da. Eskaera egin nuen erakusketa egiteko, eta, baiezkoa jaso nuenean, ze argazki egin pentsatzen hasi nintzen. Bergarak dituen ezaugarrien gaineko argazkiak egitea erabaki nuen: naturari buruzkoak zuhaitzen enborrekin, burdinarekin zerikusia duten argazkiak...

Bestalde, itsasoari erreferentzia egiten diotenak daude, gure ama donostiarra zen-eta.

Urduri zeuden erakusketa zabaldu aurretik?

Bai. Aita bergararra nuen, eta lehengusu asko ditut hemen. Erantzukizun handia nuen, bai-



Juana Mari Gallastegi haren aita Julianek egindako zirriborroaren alboan, Aroztegi aretoan.

JOSETXO ARANTZABAL

na bergararrek oso ondo erantzun dute. Pozik nago, oso gustura.

Gehienak harritu egiten dira ukimen-erakusketa dela konturatzen direnean. Ez dira ausartzen argazkiak ukitzera, apurtu egingo dituztela uste dute-eta. Orain arte kontu handiz ibili dira.

Nondik dator kizu argazkilaritzarako zaletasuna?

Aita hil eta urte askotara hark egindako zirriborro bat agertu

zitzaigun etxean. Harrituta gertatu ginen. Aitak telefonía alorrean egiten zuen lan, eta diseinuak egiten zituen. Baina zirriborro hura ezberdina zen. Bergarako lanbide eta Arte Eskolako zigi-lua zuen, eta 1916. urtean egin zuen. Aita nire idoloa zen. Harengandik ikasi nuen arduratsu izaten, xehetasunak zaintzen eta nekatu barik lan egiten. Harengandik etorri zitzaidan marrazketarako zaletasuna, eta ondoren argazkilaritzakoa. Erakusketa haren omenez egin dut. Aitak

txikitan alde egin zuen Bergaratik, baina Bergara maite zuen. Askotan etortzen zen familia bisi-tatzera. Ezin nuen aukera galdu.

Aitak egindako zirriborroa ere ikus daiteke Aroztegin. Erliebean egin dut.

Noiz arte egongo zara Aroztegi aretoan?

Hilaren 18ra arte. Egunero zabaltzen dute: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30, zapatuetan 12:00-14:30 eta domeketan, 12:00-14:00.



Gallastegi, lan baten gaineko azalpenak ematen.

JOSETXO ARANTZABAL

"Aroztegiko erakusketa Bergarara propio ekartzeko antolatut du; oso berezia da"

"Aita zen nire idoloa; harengandik ikasi nuen arduratsu izaten eta xehetasuna zaintzen"



1983. urteko erliebea, lehena.

M.B.



Puntillismoarekin egindako lana.

M.B.

MUSIKA > LEHIAKETA

Danbaka lehiaketan izena emateko epea irailaren 17ra arte dago zabalik

Aurtengoa laugarren edizioa izango da; aurkezten diren taldeen artean epaimahaiak 19 talde aukeratuko ditu eta 20.a ikusleek

ARANTZAZU EZKIBEL > ELGETA

Burrunba eta danbatekoak berriro entzungo dira Elgetako Espaloia Kafe Antzokian urritik aurrera. Izan ere, Danbakaren laugarren edizioa martxan jarri berri dute. Atzo aurkeztu zuten lehiaketa Iker Barandiaran arduradunak eta Maider Arregi aurkezleak Espaloian Kafe Antzokian.

Izena emateko epea irailaren 17ra arte dago zabalik. Aurkezten diren artean epaimahaiak 19 talde aukeratuko ditu eta ikusleek 20. taldea aukeratuko dute Interneten botoa emanda. Aurtun, gainera, lehen aldiz, Debagoieneko talde onenak bideoklipa grabatzeko sari berezia jasoko du.

LEHIAKETA HEDATU

Debagoieneko musikariak elkarrekin lehiatzeko sortu zuen Goienak Danbaka, 2004an. Baina 2008ko edizioa ezkerro, Debabarreneko eta Durangaldeko taldeak ere hartzen ditu, "Debagoieneko



Iker Barandiaran eta Maider Arregi.

ARANTZAZU EZKIBEL

Danbakako emanaldiak

KONTZERTUAK

Urriaren 22an, egubakoitza
Azaroaren 5ean, egubakoitza
Azaroaren 19an, egubakoitza
Azaroaren 26an, egubakoitza
Abenduaren 17an, egubakoitza

FINALA

Urtarrilaren 14an, egubakoitza

Kontzertu guztiak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango dira, 22:30ean.

taldeei pizgarri bat emateko, euren buruak gainditzeko", azaldu du Iker Barandiaranek, lehiaketako arduradunak.

BOTOA, INTERNET BIDEZ

Izena ematen duten talde guztien artetik hogeik joko dute lehiaketan. 19 taldeen izenak urriaren 4an emango dituzte aditzera eta falta den taldea ikusleek aukeratuko dute. Urriaren 8ra arte izango dute horretarako aukera, eta Internet bidez eman beharko da botoa.

Gaztelupeko Hotsak diskotxearekin elkarlanean disko bat argitaratzeko aukera edukiko du Danbakako garaileak. Ikusleek Internet bidez edo Espaloian bertan eman dezakete botoa. Debagoieneko talde onenaren saria ere badago, 2008ko edizioa ezkerro; aurtun, bideoklip bat grabatzeko aukera izango dute lehenengo aldiz. "Musikan gero eta indar handiagoa hartzen dabil ikusentzunezkoa, eta horregatik hartu dugu hautu hori", dio Maider Arregi Danbakako aurkezleak.

DANBAKA

Lehiaketaren IV. edizioko oinarriak

> Lehiaketan ezin dute parte hartu indarrean kontratu diskografikoak dituzten taldeek.

> Derrigorrezkoa da gutxienez taldeko partaideetako bat Debagoienean (Aramaio barne), Debabarrenean edo Durangaldean errolatua egotea 2009ko urtarila baino lehenagotik.

> Irailaren 19rako entregatu beharko dira CDak, zehazki hiru kantu original (ez bertsio) izango dituztenak. CDan barik, MP3an ere bidali ahal izango dira hiru kantuok, e-postaz danbaka@danbaka.com helbidera. CDarekin batera, taldearen argazkia(k), biografia txiki bat, helbidea, telefonoa eta e-posta jakinaraziko dira.

> Aurreko hiru edizioko sei finalistek ezingo dute parte hartu edizio berrian. Gainontzeko sailkatuek parte hartu ahal izango dute, baina hiru kantu berri aurkeztu beharko dituzte.

> Parte hartu nahi dutenek ondoko helbidera bidali beharko dute dokumentazioa: Goiena Komunikazio Zerbitzuak DANBAKA, 132 posta-kutxa 20500 Arrasate; edo, eraman Goienaren beste edozein egoitzatara. Informazio gehiago: 943 25 05 05 telefonora deituta.

IKASTAROA > 'CLOWN'-A

'Clown' ikastaroa egingo dute aste bukaeran Bergaran

Oihulari Klown taldeak antolatutako hurrengo ikastaroak abuztuan izango dira

A.E. > BERGARA

Bihar eta etzi artean elkartuko dira *clown* zaleak Bergaran. Izan ere, Oihulari Klown taldeak hasitapeneko *clown* ikastaroa eskainiko du. Bergarako baserri batean egongo dira, bi egunez. Umorez betetako aste bukaera izango da, duda barik.

FORMAKUNTZA

Ikastaroak emango dituzte Oihulari Klown taldeko Virginia Imaz eta Jose Karmelo Muñozek. Gainera, Rosa Zaragoza irakaslearen laguntza izango dute Imaz eta Muñozek.

Parte hartzeko izena ematea derrigorrezkoa da. Esan behar da aste bukaera honetakoa ez dela izango Bergaran eman behar duten ikastaro bakarra. Hurrengo ikastaroak izango dira: abuztuak 10, 11 eta 12, *Clown sakontze ikastaroa* -300 euro-; abuztuak 14 eta 15, *Ahozko narrazioa* -180 euro-; abuztuaren 23tik 27ra, *Clown eta sorkuntza ikastaroa* -380 euro-; eta abuztuak 28 eta 29, *Clown sakontzea* -230 euro-.

Antolatzaileek adierazi dute beharrezkoa dela ikastaroetara arropa eroso eta eramaitea; eta baita lo-zakua eta nork bere garbi-



Oihulari Lownen emanaldi bat.

GOIENKARIA.

tasunera beharrezkoa izango duena eramatea ere.

IZENA EMATEKO

Ikastaroetan parte hartzeko interesa duenak dei dezala 943 76 97 90 edo 607 20 45 03 zenbakira; edo mezua bidali ondoko helbide elek-

tronikora: virginiakarmelo@euskalnet.net. Ikastaroan tokia dagoela ziurtatu ondoren sartu behar da dirua Euskadiko Kutzako 30350009130090061437 zenbakian.

Ikastaroa hasi baino astebe- te lehenago amaituko da izena emateko epea.

> AURKEZPENA

'Urbietako kaleko borroka' liburuxka aurkeztuko dute bihar

Eskoriatzako udaletxean *Urbietako kaleko borroka* komiki liburuxka aurkeztuko dute bihar, zapatua, 12:00etan. Eskoriatzako Udalaren laguntzarekin argitaratutako liburua da. Liburuan, Felix Likiar no anarkistak 36ko uztailaren Donostiaren defentsan izan zuen papera kontatzen da.

> MUSIKA

Azkaiter Pelox zuzeneko diskoa aurkezten dabil

Bergarako Agorrosingo igerilekuan aurkeztu zuen atzo disko berria; gaur, Orioko Kalakarin izango da kontzertua, 22:00etan. Diskoa martxoaren 11n eta 13an grabatu zuen Unai Azkaratek Bergarako Laino skategunean eta Orioko Kalakarin emandako zuzenekoetan.

www.danbaka.com



DANBAKA)))))

IV. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARREN ADEBAGOITEN AURANGALDEA

PARTE HARTU NAHI?

Debagoiena, Debataviena edo Durangaldea
buzara eta taldeak zein taldeak? gus bazabiltza,
Danbaka Musika Lehiaketa zein daukazu.
Lehiaketa sate onenak disko bat grabatu eta
kaleratu da. Debagoieneko sate onenak
beteziki? bat grabatu da.

Dirariak eta informazio gehiago:
www.danbaka.com

irailak

17

izena
emateko
azken
eguna

Elizabeth Torres > Atzegiko boluntarioa

"Gogoa eta motibazioa nahikoa dira boluntario lanak egin ahal izateko"

Integrazio Soziala ikasten zegoela Txolarte programari buruzko informazioa ematera joan ziren ikastetxera. Hori dela eta, ez zuen bi aldiz pentsatu eta Atzezin boluntario hasi zen lanean. Jadanik urtebete darma bertan. Asteburuetan egiten du boluntario lana eta astean zehar Gizarte Hezkuntza ikasten dihardu Donostiako Euskal Herriko Unibertsitatean.

NAROA ODRIUZOLA > ARRASATE

Pertsona gutxi daude besteei laguntzeko prest ordainetan ezer jaso gabe. Elizabeth Torres talde murriztu horretan kokatuko genuke. Integrazio Soziala ikasi ondoren, Gizarte Hezkuntza ikasten hasi da. Horrez gain, urtebete darama Atzezin boluntario lanetan. Harekin izan gara egiten duenaz hitz egiteko.

Integrazio Soziala ikasi duzu. Orain zertan zabiltza?

